

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

135. zenbakia

98ko apirilak 24



Antzar festak

Arg.: M. Albisu



GARMENDIA ERAIKUNTZAK



Egurrezko eta edozein
motatako teilatuak



**30 URTEKO
GARANTIA**

**AURREKONTUAK
NEURRIRA**

☎ 943 - 69 35 49

📞 929 - 46 95 26

Ugartemendi, 6
Tel.: 88 07 53 - 88 73 93
Faxa: 16 10 48
20200 BEASAIN

TXINDOKI Institutua



LOGSE batxilergoetan esperientzia osoa duen ikastetxe bakarra. Ohikoez gain, gai berriak ikasteko aukera:

- Laborategi Teknikak
- Industri Teknologia
- Lurraren eta Ingurugiroaren Zientzia
- Anatomia eta Fisiologia
- Mekanika
- Zuzenbidea
- Ekonomia
- Enpresa Antolaketa eta Kudeaketa
- Administrazio eta Kudeaketa Prozesuak
- Psikologia...

*Izen emateak:
maiatzaren 6tik 18ra
Matrikula zuzena: uztailaren
1etik 10era*

INGURUGIRO KIMIKA

- Ingurugiroaren Babespena Antolakuntza eta Kudeaketa
- Eguratsera Igorpenen Kontrola
- Hondakinen Kontrola
- Uren Arazketa
- Kimika-Segurtasuna eta Industri-Higieena
- Erlazioak Lan-Munduan
- Formazio eta Orientazio Laborala
- Kalitatea eta Etengabeko Hobekuntzak
- Praktikak Enpresetan

*Izen emateak: ekainaren 16tik 19ra
Matrikula: uztailaren 20tik 23ra*

**GOI MAILAKO
TEKNIKARIA**



BATXILERGOAK:

- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa.
- Humanitateak eta Giza Zientzien Batxilergoa.

ZIKLO FORMATIBOAK:

- Ingurugiro Kimika (Goi Maila).
- Laborategia (Erdi Maila).



LABORATEGIA

- Laborategiko Oinarrizko Iharduerak
- Entseiu Fisikoak eta Fisiko-Kimikoak
- Kimika eta Analisi Kimikoak
- Mikrobiologi Frogak
- Informazioa eta Segurtasuna Laborategian
- Formazio eta Orientazio Laborala
- Praktikak Enpresetan

TEKNIKARIA



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

 Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

 Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Edurne Albizu, Aitor Arrue, Ga-
bino Murua, Josune Amondarain,
Mikel Luzuriaga, Patxi Telleria
eta Xabier Mendiguren.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**
Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 6.900 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

 GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

**Ganadua Aralarreara igotzeko festa
maiatzaren 1ean Larraitzen**

Negua beheko larreetan igaro ondoren, Amezketan, Abaltzisketan, Zaldibian eta Ataundik barrena, ardiak, behorrak eta behiak Aralarrearruntz abiatzen dira udaberrian. Aralarreko larreetara igotzeko irteera ofiziala maiatzaren 1a izango da aurtengoan, eta izaten den ikuskizuna herritar guztiei eskaini nahi die Enirio Aralar Mankomunitateak. Lehenengo aldiz, festa antolatu da aurten. Aralar da Gipuzkoako mendi bakarra, neguan azienda jaitsi eta atsedean ematen zaiona. Eragin onak omen ditu. (Hurrengo alean izango duzue gai honi buruzko erreportaia zabala).

Larraitzen izango da festa. Hainbat ardi, behor eta behi bertan elkartu, festa egin eta eguerdiko 12etan elkarrekin abiatuko dira

Aralarren gora. Maiatzaren 1etik urtarrilaren 31ra bitartean, 18.000 ardi, 550 behorrek eta 600 behik bazkatuko dute Aralarreko larreetan.

Goizeko hamarretan hasiko da ikuskizuna. Ardi bairuak, ardi moztailak, behorren markaketa eta larre-behien erakusketak izango dira. Aralarreko artzainen gazta salmenta ere izango da. Horiez gain, artisau erakusketaren barruan, ohiko tresnen erakusketak, gaztagileak, artilegileak, abarkagileak, zintzarrigileak, pelotagileak eta talogileak izango dira. Soinujoleak eta txalapartariak alaituko dute eguna.

Eguerdiko 12etan, Aralarreko larreen irekiera adieraziko duen suziria botako da.

BOTA BERTSOA

Alaitz Alustiza

(Goierriko bertso-eskolako ikaslea)

**Idiazabal eta
gazta**
**Doinua: hamarreko
nagusiko edozein**

Ketu gabeak eta ketuak bietatik da aukera erosketa hori egin liteke gustuaren arabera maiatz aldean etorri ezkeroko guztiok Izal aldera gazta festaren erdi erdian denok elkartuko gera.

Artzai bakoitzak egin izan du bakoitzak bere gaztaia Idiazabalek kontu horretan egin dauka sustraia baldin badezu eguerdi arte bat ongi pasatzeko nahia inguratu ta ospa ezazu Izalgo gaztaian jaia.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria


GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Etxahun, zure nahiak!

Istripuz galdu berria dugun, Gabiriako makilari gaztearen omenez, Etxaun Gorrotxategi, bere ikaskide eta irakasleek sorturiko bildumatik hartua.

Zure ihesa dela ta
burua noraezean
halere gordetzen zaitut
nere bihotzan barnean
Etxahun nahi zaitugu berriz
zu gure lagunartean
eta ez dugu etsiko
horixe lortu artean
gure ingurutik urrun
zu zabilzan bitartean
bihotzak ez dira egongo
momenturik onenean
zure alaitasuna degu
oraindik aldamenean
baina sentitzen gerade
zu gabe bakardadean.

Zure poz ta alaitasuna
ezin ditugu ahaztu
gure bizitza alaitzen
asko zinaden saiatu
zure nahi preziatua

oraindik ez degu lortu
Euskal Presoak herrian
ez bait ditugu elkartu
Espainiar gobernuak
denak ditu barreiatu
baina egingo ditugu
gudariak herriratu
eta zuk nahi zenuena
Euskal Herria askatu!


Gurasoak eta arreba

Zuzenketa

Aurreko aleko bi zuzenketa egin beharrean gaude. Dagokienari, barkamenak lerro hauetatik.

1.- Azaleko argazkia Goen argazki dendakoa da, eta ez M. Albisuren.

2.- 3. orriko Jon Aiestaranen bertsoetan bigarren bertsoa lehenengo errima gaizki jarri genuen, bertsoa erabat aldrebestuz. Arrotzaren orde, arraroa behar zuen: "Norbaitek zion euskera gabe hau Euskadi arraroa...".

Besteak esana

"Enpresariok kompetentzia kooperazioagatik aldatu behar dugu"

JUAN JOSE AROZTEGI
Aristraingo zuzendaria
DIARIO VASCO

"Zaharren Egoitzan emakumeek borondatezko izpiritu handiago daukate"

MARI KARMEN BUSTINDUI
Beasaingo Zaharren Egokitzako lehendakaria
DIARIO VASCO

"Eskaladan indarra behar da, gizonezkoek gehiago dute normalean baina guk teknika, koordinazioa eta flexibilitatearekin konpentsatzen dugu indar falta"

JOSUNE BEREZIARTU
Eskaletzailea
EMAKUNDE

Publizitate erreportajea

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kultural, euskaran, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baqué enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiatatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sariatzen eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandak ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendari Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldur bedi eredu.

LARRAIZ ODRIOLAZA

TXANDAKA

Ordizia maite...

Nire herrikoak haserretu egingo zaizkit hau irakurrita baina, polita-goia iruditzen zait Ordizia Beasain baino. Betidanik gainera: gogoan daukat, txikitan, Ordiziara marrazki-lehiaketa batera joan eta txoratu egiten nindutela hango etxe zahar, kale estu, bazter sekretuek. Alde ederra hango kasko bilduak, gure Beasain luxe gatzik gabekoarekin!

Historiak du noski horren errua. Baina historiaren eta paisaiaren ekarria guk geuk hobetu edo hondatu egin dezakegu. Udal demokratikoen hasieran bere ondare ederra herri osoaren eskuetan jartzen jakin zuten ordiziarrek, Barrenako jauregian eta honen lorategian egindako lanekin. Inbidia galanta nik, etxe inguruan ditudan parkeekin konparatzen badut: bai Errekarte aldekoak bai Kanposantu Zaharrekoak porlandegi baitirudite, lorategi baino gehiago.

Maitasun-aitortza honek ematen dit hortaz eskubidea, Ordizian azken aldian egiten ari diren txikizioak salatzeko. Ibarbia jauregi dotorea, Plazaren izkinan zegoena, bertan behera hondatzen utzi, eta azkenean botatzea beste erremediorik ez omen zegoen. Horren ondoren alferrik da etxe berrian armari zaharraren imitazioa jartzea. Hanka moztu eta plastikozko protesia jartzea bezalatsu. Eta Garagartza plazan egiten ari direna? Herriko txokorik politenetakoa zena, bere arboladi eta iturriarekin, aparkaleku xaxtar bihurturik eduki dute urteetan, eta orain berriz, dena txikitu eta etxe pila ikaragarria eraiki bertan...

Oteizaren eskultura baino gehixeago beharko dute biharko beasaindarrek, Ordiziako txokoekin ni txikitan bezala liluratzeko.

Xabier Mendiuren Elizegi



Zer kendu eta zer jarriko zenuke San Prudentzio festetan?

Anartz Eztala

29 urte, igeriketako monitorea
lazkaotarra

Makina bat gauza jarriko nituzke, beti gauza berdinak izaten baitira. Koadrila egunean koadrilak elkartzeko ekintza gehiago jarriko nituzke.



Jose Luis Vazquez

33 urte, langilea
lazkaotarra

Euria kenduko nuke. Jarri, berriz, musika talde hobeak.



Maria Elena Agirrezabal

50 urte, garbitzailea
Lazkaokoa

Bertsolariak jarriko nituzke eta kendu musika "istilutsu" hori. Nahiz eta nere semea ez den ados egongo.



ITXURRENE
T A B E R N A

Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...

☎ 885759 LAZKAOMENDI



RENAULT
AGENTZIA

**Festa onak
pasa!**

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g
☎ 88 80 23 LAZKAO

AMEB



Sagardotegia

HERRIKO JAIK DIRELA ETA,
APIRILAREN
28AN ETA 30EAN
BAZKARIAK
EMANGO DIRA

*Txotx
garaiaren amaiera
maiatzaren 3an*

Maiatzaren 8tik aurrera erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean

- ✗ Eguneroko menua
- ✗ Karta zerbitzua
- ✗ Plater konbinatuak
- ✗ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka,9

☎ 943 16 25 23

LAZKAO

ZINEA

BEASAIN:

'El indomable, Willy Hunting'. Ostirala 24: 22:15; larunbata 25: 19:30, 22:15; igandea 26: 19:30 - 22:15. astelehena 27: 19:30 - 22:15.

ZINEA EUSKARAZ:

Ordizian eta Beasainen:

Informazioa Ordiziako eta Beasaingo kroniketan duzue, 21. eta 24. orrietan.

BERTSOAK

LAZKAO:

Apirilak 24, bertsojaialdia: Maia, Sarasua, Amuriza, Lazkano, Murua eta Aitor Sarriegi. Kiroldegian, 22:30etan, Herri ekimenak antolaturik.

ORDIZIA

Maiatzak 2, Osinalde sariketako kanporaketa, Argi-Berri elkartean; 20:30ean afaria. Bertsolariak: Ibai Esoain, Nahikari Gabilondo, Arkaitz Goikoetxea, Iñigo Manzidor, Ike Osa eta Oihane Perea.

MUSIKA

LAZKAO:

Apirilak 25, Drindots, Plazan, 23:30ean.

Apirilak 27, Declive eta Fist Fucking rock taldeen kontzertua, plazan.

Apirilak 29, Patxi Kaleko taldearen folk musika emanaldia, plazan, 22:30ean. Partaideak: Aitor Furundarena, Urbil Artola eta Mikel Izulain.

ORDIZIA:

Apirilak 25, Donostiako Orfeoien kontzertua, Elizan, 20:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Maiatzak 5, Jose Izagirreren 'Iparralde: Xiberuatik itsasora' diapositiba emanaldia, 17:00etan, Udaletxeko Batzar Aretoan, Udal Euskaltegiak antolaturik.

ERAKUSKETAK

ORDIZIA:

Maiatzaren 6ra arte, Joxe Miel Barandiaranen omenezko erakusketa Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 3, Erniora.

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 3, Errotz-Beriain-Uharte Arakil.

Ordiziako mendizaleak:

Apirilak 26: Urbia-Arbelaiz.

Maiatzak 3, Ataun-Arantzamendi-Esparru.

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA
Txitxarro eta sardinak
parrilan

© 65 21 76

ABALTZISKETA



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

Ford
MUJIK



BEASAIN

☎ 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

Beasain Hiria argazkigintza lehiaketa

Argizpi elkarteak antolatutako Beasain Hiria XXXIV. argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea maiatzaren 6an bukatuko da. Bi gai daude: librea eta mendia. Teknika eta aurkezteko modua librea da, baina gehienez ere 30x40 zm. ko kartoiez sendotuta. Argazkiaren atzealdean izenburua, datu pertsonalak, telefonoa eta zein elkartetako bazkide den adierazi behar da. Lanak Arana kaleko, 2. zenbakira edo 13. posta-kutxara bidali behar dira. 7 sari banatuko dira guztira eta irabazleak 25.000 pezeta eta garaikurra saria jasoko ditu.

MARTXOAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Tentazioak**
Jasone Osoro (Elkarlanean)
- 2- **Ostegunak**
Jon Arretxe (Elkarlanean)
- 3- **Telefono kaiolatua**
Harakaitz Cano (Alberdania)
- 4- **Pasionaria**
Alberto Barandiaran (Xenpelar)
- 5- **Triangelu hautsia**
Txema Garcia-Viana (Alberdania)

DISKOAK:

- 1- **Etzakit**
'Atzakik' (Elkar)
- 2- **Lorelei**
'Bada hiri gorri bat' (Gaztelupeko hotsak)
- 3- **Mikel Urdangarin**
'Haitzetan' (Laggin)
- 4- **Kashbad**
'Distantzia' (Esan ozenki)
- 5- **Koma**
'El infarto' (Gor)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Apirilak 25-26: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 88 02 32.

Maiatzak 2-3: Arriola (Plaza Nagusia, - Ordizia). 88 26 28.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

- ☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.
- ☐ Ileapaindegirako neska bat behar da. Beasaingo 144 posta-kutxara bidali datu guztiak.

Salerosketak:

- ☐ Txakurkumea salgai (98-3-Ilean jaioa). Ama, Braco alemana pedegreearekin. Aita, Braco aleman-frantzes. Euskadiko azpitxapelduna oilagorretan. 80 01 08.
- ☐ Irrati kaseta salgai, Blaupunkt/kt stereo markakoa. 88 13 19.
- ☐ Artzain txakur polit eta mantsoa oparitzen dugu. Baldintza, libre ibiltzeko adina toki edukitzea. 161945.

- ☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Beasain. 10 litrokoa. 88 99 32.
- ☐ Larre behiak salgai, 160616 edo 885007 telefonoetara deitu.

Bestelakoak:

- ☐ Aralarren, Txindokira bidean zilarrezko eskumuturrekoa (pultsera) aurkitu da. Jabeak dei dezala 88 26 83 telefonora.
- ☐ Betaurreko pare bat galdu nuen orain hilabete bat Beasaingo Super BM eta Ataun artean. bifokalak dira eta funda beltza baten barruan zeuden. 180041. Karmen Mundeate.
- ☐ Eskusoinuak konponitzen dira, marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Setatik 7etara deitu, ostegunetan izan ezik.



GESTORIA Biok

(BANDRES)
ASEGUROAK

Errenta aitorpenak egiten dira

Goierri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58


IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Patxi Telleria

“Aita Antonio Zabala jaun argi eta bihotz haundiz bertso munduan eta euskarari on handia eginez, lan asko egin duen langile paregabea, eta emaitz eta altxor handiak lortu dituen dugu”.

Aita Antonio Zabala, aitona zena bizi zela, bisitara joanda askotan izana zen baserri hartan, baina berriro egun batez joan zen batean atea txirriskaturik eta inoren arrastorik ez. Kas, kas, kas, Abemaria... bi bilobatzok leihotik sukaldera joateko kiñara egin ondoren sartu zen sukaldera eta han aurkitzen ditu su-bajuan enborrak ia itzalian. Bi bilobatxo sutondoan hotzak, amonaren aulki gainean hauspoa bakarrik. Galdera hau egiten die orduan: “Non dira etxe honetako besteak?” Bilobatzokaren erantzuna: “Amona ondoezik aurkitzen zen eta ohera erretiratu zaigu; ama, aita kartzelan dago eta bisitara joan zaio”. Aita Zabalak egoera hura ikusi zuenean hauspoa hartu, amonaren aulki gainean eseri eta subajuko enborrari fu eta fu txingarretik sua pizteraino eragin zion. Horrela sukaldea bero-bero jarri zuen amona eta bi bilobatzok goxo-goxo etxera etorri arteraino.

Sukalderaino sartu zen batean Abemaria esanda hotzak zeuden umeei galdera hemengo sendia nunda amona oia juana zaigu ondoez aurkitzen zanda aita kartzelan dago ta ama bisitatzeraz juanda.

Aita Antonio Zabalak egin duenaren konparaketa

Aulkian jarri amonan lekun or astintzen du auspua itzal zorian zegon txingarrak berriz enborrean sua berotu ditu bi bilobatzok eta amona gaixua amak etorri zanen aurkitu zuan sukalde gosua.

Aita Antonio Zabala jaun argi eta bihotz haundiz bertso munduan eta euskarari on handia eginez, lan asko egin duen langile paregabea, eta emaitz eta altxor handiak lortu dituen dugu. Bere esaldiari jarraituaz hari puntari tiratu eta mataza haundi batekin aurkitu.

Hari puntari tiratu eta eskuratu zuen mataza hor ikusten da jaun hau degula saiatua ta kapaza bere garaian emana zion zegon premiari traza garai zailetan hasi zan baina irabazi zuen baza.

Gaurko jendeak galdua gendun lengo zor haien biria horrenbeste lan egin dunari eman behar zaio beria gure herriak etzun izango arkitzen degun zoria euskera, bertso eta herria lotzen dituen haria.

Jada galdu zorian zeuden haziarekin ere berdin egin du noski. Haziak bildu, baratza eder bat prestatu eta han haziak erein eta mintegi on bat sortu, handik soroan aldatu bere garaian txertatu eta lagundu ale ederrak emateraino.

Justu justuan bilatu zitun galdu zoriko haziak baita baratza prestatu ere ebakirikan sasiak erein zitun guziak orain mintegi izateraino handitu eta haziak.

Mintegitikan beste soroan aldatu zitun guziak landare onak nola bai zeuden ederrak eta gaztiak mentu ederrez txertatu zitun nola bat ala bestiak ale ederrak ematen ditu jarri zuben sagastiak.

LAZKAOKO SAN PRUDENTZIO JAIK

AGURRA

1998. urteko festak atarian ditugu. Lerro hauen bidez, egun jator batzu pasa ditzagula opa dizuet, gure arteko harremanak berotu eta eguneroko bizitzan izaten ditugun tira-birak gainditu.

Eskerrak eman nahi dizkiet urtez urte, eta isilean festetako programa eta beste hainbat ekintza urtean zehar antolatzen eta aurrera eramaten saiatzen diren guztioi. Hauen artean, gogorapen berezia gure artean joan zaigun Andoni Arruabarrenari.

Herriko seme eta kanpotik gure artera etortzen zareten guztioi, gure ongietorrikeri beroena, eta zuen laguntzak eman diezaioela bizia gure arteko festari. Gogoan izango ditugu baita ere, arrazoi desberdinak direla eta, gure artean izango ez diren herritarrak.

Aurrerantzean ere, Udaletxeko kide guztioi, eta zuen laguntzarekin beti ere, arazoei irtenbideak aurkitu eta Lazkao bizileku jator bat bilakatzen saiatuko gara.



**Lazkaoko
Udala**



Alkatea: Inazio Estensora

ERREZETA



Ane Otegi
Pipas jatetxea
Lazkaomendi

KOKOAK

Osagaiak: 3 arrautza, 200 g koko eta 150 g azukre.

3 arrautza, 200 gramo koko eta 150 gramo azukre, ontzi batera bota. Dena nahastu eta bola txikiak egin. Ondoren, labean sartu eta 15-20 minutuz eduki. Kolore marroixka hartzen dutenean labetik atera. Hozten direnean, jateko prest daude. On egin!

AHOLKUA



Mikel Luzuriaga
Bereziartu
Optika Mikel

Begi barneko presio altua: glaukoma

Begi barneko presioa hiru faktoreren menpean dago:

- humore urtsuaren jariatzearen tasa.
- drenatze sistemen erresistentzia.
- zainen presioaren maila.

Begi barneko presio normala 10 eta 21 mm. hg. baloreen artean dago. 21ekoaren mailatik gorakoak errezeloz begiratu behar dira. Hala ere badaude pertsonak presio handiagoak izan eta glaukomotosa presiorik ez izatea.

Glaukoma mota ezberdinak daude, bakoitzak bere ezaugarri klinikoe-kin. Kasu zehatz batzuetan diagnostiko presuntzionala osatzen laguntzen diguten ezaugarriak badaude: argi iturri inguruetan halo koloretsuen pertzepzioa, begiko eta inguruko mina, etengabe-ko ikusmen lainotsua, eta abar.

Dena den, prebentzio-rako sistemarik onena begi barneko presioaren balorea hartzea da. Gure zentruetan bitarteko egoiak ditugu horretarako.

Egitura ezberdinak dituen esfera da begi-globoa. Horien artean humore urtsua deritzon likidoa dago.

Humore urtsua odol-plasmaren antzekoa da, elektrolito eta proteinetan izan ezik.

BATZOKI TABERNA

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 29 69 LAZKAO

TAPIA



Instalazio
elektrikoak

Ibabe Industrialdea, 18
82 postakutxa

☎ 88 95 94
LAZKAO

ARTANO

Arrandegia



Festa onak pasa!!!

☎ 88 24 44

Uhaitz, 2

LAZKAO



ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaiak

Atzondo
roztegia, C.B.

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

☎ 16 09 31 LAZKAO



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

☎ 16 13 61
Hirigoien, 18
LAZKAO



INTXARONDO
JANTZIAK

FESTAK
ONDO
IGARO!!!

Uhaitz, 3

☎ 88 08 40

LAZKAO

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoien, 24

☎ 88 05 83

LAZKAO

Indar

Beasaingo Indar enpresak bi lantegi berri eta 130 lanpostu sortzea aurrirakusten du. Ingelectric, Kutxa eta BBK akzionistak izango lirateke. Generadore eolikoak eta makina elektriko handiak egingo lirateke lantegi berrietan.

Orkli-Jaso

Ordiziako Orkli kooperatibak eta Idiazabalgo Jaso enpresak egin nahi dituzten inbertsioak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak dirulaguntzak ematea erabaki du. Orklik 3.493 milioi gastatuko ditu eta 90 lanpostu sortu. Jasok, berriz, 766.630 milioi gastatuko ditu eta 36 lanpostu sortu.

Aroztegi Gipuzkoako enpresari

Juan Jose Aroztegi, Aris-traingo zuzendaria, eman dio Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak, urteko enpresariaren saria.

Etxegarate

Etxegarateren bikoizketa eskatzeko konzentrazioa

egin zuten IU-EBko Gipuzkoako eta Nafarroako karguek. Etxegarateren bikoizketak Eibar-Gasteizen aurrean lehentasuna izan behar duela uste dute. Algeciras eta Europaren arteko puntu beltza bakarria Etxegarate dela gaineratu zuten.



Maria Jesus Intxausti

EHNEko (Euskal Herriko Nekazarien elkarte) Gipuzkoako lehendakari berria izendatu dute Lazkao-mendiko Iztueta baserriko Maria Jesus Intxausti.

Ekitun

Turismo sektorea indartuz, aktibitate turistikoak eta kulturalak antolatzeke Ekitur enpresa sortu da. Goierri ezagutu nahi dutenentzat bisitak, txangoak... antolatuko dituzte.

Laukiak

Apirilaren 20an jaio ziren Maria, Maite, Joseba eta Asier Maiztegi Dominguez, Ordiziako lau kiak. Eguerdiko 12,30ak zesarera bidez etorri ziren mundura Donostiako Arantzazu ospitalean. 1.660 eta 1.990 gramo artean pisatu zuten Vicky eta Josebaren seme-alabek.

Kritika saria

Legorretako Patxi Ezkiagari poesia ataleko 1997ko Kritika Saria eman diote, 'Zauriaren salmoak' poemarioa-gatik.

Xabier Mendiguren Elizegi

Beasaindar idazleak bi liburu aurkeztu zituen Donostian, hilaren 20an. 'Gure barria 1975', haurtzaroko oroitzapenetan oinarritua, eta 'Kanibelaren kaiolan', gazteei zuendutakoa, dira bi liburuak. Beasainen ere egin zuen aurkezpena, hurrengo egunean.

Mikel Urtxegi

Apirilaren 4an jokaturako Ordiziako II. Akordeoi Jaialdia Berako Mikel Ur-

txegi soinu-joleak irabazi zuen. Taldea Mikel Artieda gitarrajoleak eta Igor Telletxea baterajoleak osatu zuten eta jazz eta folk doinuak jo zituzten besteak beste.

Telletxea

ETB-lean apirilaren 20an estreinatu zen Telletxea saioko aurkezlea da Jose Felipe Auzmendi beasaindarra. Beste beasaindar bat ere protagonista nagusia da: Loinaz Jauregi.

Aitor Garmendia

Itsasondoko txirindulariak irabazi du bi urtez segidan, Aragoiko itzulia.

Marron

Joxe Ramon Agirre 'Marron'ek K-2 mendiarri buruzko diorama egin du. Testuak Harkaitz Cano idazleak idatzi ditu. Marronek eta beste 3 mendizalek ez zuten K-2 mendia igotzerik izan. Eta diorama honek badu ezohizkoa den zerbait: egun haietako tentsioa eta espedizioeko lagun arteko eztabaidak ere jasotzen dira. Alderdi humanoa azaldu nahi izan du Marronek.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

nick's
ENGLISH CENTRE

Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1
☎ 88 00 83 - 16 00 51
ORDIZIA




Cambridge, 97ko uztaila

Aurten ere Ingalaterrara gurekin etortzeko aukera duzu 11 urteko esperientziak ematen dizun konfiantzarekin

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

ZELATA TABERNA



Giro ezin hobea!

Uhaitz, 1
LAZKAO

MANUEL-ENEA TABERNA

*Festa onak
pasa!*

☎ 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Eguneroko bazkariak
Afariak

☎ 88 99 43
Elosegi, 16
LAZKAO

ALBOKA TABERNA



☎ 88 7197

Uhaitz, 2 LAZKAO

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Elosegi, 7
LAZKAO

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



DORRAO TXIKI

TABERNAK

*Festa zoriontsuak
opa dizkuzue!*

Elosegi, 4
LAZKAO

ANSOATEGI HERRIKOA



FESTAK ONDO
PASATZEKO TXOKOA

☎ 88 68 52
Elosegi, 15 LAZKAO

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*


☎ 88 77 40
Areso, 6
LAZKAO

Drindots: "Koadrila egunean jende asko igotzen zaigu eszenatokira"

Drindots taldeak 4. diskoa kaleratu du: 'Delilah'. Plazetan eskaintzen dutenaren laburpentsua da. Bertsioak eta abesti propioak grabatu dituzte. Dantzatzeko doinuak dira, estilo guztietakoak. Lehenengo aldiz, produkzio propioko boleroa sartu dute. Aurrekoak baino disko landuxeagoa omen da.

Maritxurekin hasi, Eba Mirentxurekin segi eta orain Delilah. "Emakume izena omen da. Diskoa grabatzen hasi aurretik erabakita genuen diskoan ziur sartuko zen kanta Delilah izango zela. Gizonari adarrak jartzen dizkion emakumea da Delilah. Bertsio originalean, senarrak emaztea hil egiten du. Euskarazkoan, gogor xamarra zelakoa edo, saiatu saiatzen da baina ez du hiltzen", dio Jon Urdangarin, taldeko kitarra eta kantariak.

Udako abestirik ez omen



dago disko honetan. "Udako kanta izateko hortero xamarra izan behar da eta disko honetan ez dago. Eba Mirentxu horteroa zen, baina taldeko guztiei gustatzen zitzaigun. Eba Mirentxuren antzeko zerbait egin izan bagenu, errazagoa izango litzateke udako abestia izatea. Baina momentuan ez daukagu horrelako premiarik", aitortu digu lazkaotarrak.

Bi egunetan joko du Drindotsek San Prudentzio jaietan. Koadrila egunean drindotstarrak izango dira plaza alaituko dutenak. "Lehen alukeria handiagoa izaten zen koadrila egunean jotzea. Orain ia urtero jotzen dugunez, ohitu egin ga-

ra. Urte batzuetan bazkal-tzera ere joan izan gara baina azken urteotan ez. Baina nik uste adin kontua dela. Parranda beste egunen batean egin behar. Beharbada gaur egun gogorrena eszenatokira jende asko igotzen zaigula izaten da. Herrikoak dira, ezagunak, eta ezin ditugu bidali".

Koadrilen egunean jotzen dutenean jende gutxi izaten omen da dantzan, "baina agertzen direnak nahiko animatuta". Urdangarinek aitortu digunez, eszenatokitik gauza ikusten da. "Ni oso okupatua egon naiz eta nik ez, baina taldekideek gauza asko ikusten dituzte. Bikoteak sortzen..."

Beti izan du Drindots taldearentzat esanahi berezia Lazkaon jotzeak, denboraldi hasiera adierazteaz gain. "Lehen gure adineko jendea ibiltzen zen dantzan eta okerragoa izaten zen. Lotsa handia ematen zidan hainbeste ezagunen aurrean jotzeak, baina barregarria ere izaten zen, gure lagunak dantzan ikustea. Orain plazan dabiltzanak normalean ez ditugu hainbeste ezagutzen", esan digu Urdangarinek.

Garai batean gainera, jende gehiagok egiten omen zuen dantza. "Nik uste dut txosnak Zelain izateak eragin handia duela, jende asko mugitzen baita inguru hartan. Guretzat egokiagoa litzateke txosnak plazan egongo balira. Baina Zelain ere beste gauza batzuk egiten dira, eta ondo dago txosnak han izatea. Beste musika talde bateko kide batek dioenez, txosnarik gabeko berbenarik ez dago".

Urtean 100 bat plaza egiten ditu Drindots taldeak. Errepertorioa aldatzen ari dira. Hala ere lazkaotarrak adierazi digunez, azkenaldian ez omen da berbenetan jotzeko moduko abestirik ateratzen, trikitixatik aparte.

GAUR
KARROZATEGIA
Auto konponketa - margoketa
Festak ondo pasa!
Mendizabal baserria
☎ 88 86 09 LAZKAO

ZEBSA
MAQUINARIA Y SISTEMAS DE LIMPIEZA, S.L.
Arizpe Auzoa, zig - Tfnoa.: 80 63 82
LEGORRETA

IBILGAILUEN GARBIKETARAKO TUNEL ETA ZUBIEN FABRIKAZIOA
INDUSTRI GARBIKETARAKO MAKINARIA
KAMIOI ETA AUTOBUSEN GARBIKETARAKO MONOZEPILOAK
PRESIOZKO UR SISTEMEN INGENIERITZA ETA FABRIKAZIOA

Z-GAR
EUSKAL HERRIRAKO BANATZAILEA
Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 50 09 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

ZEBSERVIC S.L.
ASISTENTZIA TEKNIKOKO ZERBITZUA
Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 51 50 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

GEZA
SERVICIO DE LIMPIEZA, S.L.

GARBIKETA INDUSTRIALA
UDALENTZAT ZABOR BILKETA ZERBITZUA
GARBIKETA BEREZIAK MAKINARIAREKIN

Ibabe Industrialdea, 28
Tfnoa.: 80 51 47 • Faxa: 88 43 67
LAZKAO

Frontoia berritzeko lanak ez dira sanprointziotarako bukatu ahal izan

Hasera batean, Sanprointzio egunerako plazako frontoiko lanak amaituta egotea espero bazen ere, ezinezkoa izango da festetarako lan hauei amaiera ematea. Eguraldi txarra medio atzeratu egin dira, beraz, egun hauetarako amaituta behar luke ten lanak.

Nolanahi ere, eguraldiak pixka bat laguntzen badu, espero dute festetarako frontoia tapatuta uztea eta ondorioz plazan dauden grua eta beste hainbat lanabes bertatik kentzeko moduan egongo lirake. Sanprointziotarako herriko plaza ahalik eta txukunena utzi nahi dute, bertan egingo diren erromeria eta beste ekitaldi guztiak inongo oztoporik gabe ospatzeko asmotan.

Plazako frontoiaren estaltze lanak halere nahiko



Hemendik aurrera, pelota partiduetan, ez da errepide erditik pelota jotzen ikusiko, Joxe Mari Albisuk ateratako argazki honetan bezala.

aurrerratuak daude eta festak amaitu eta berehala bukatuko dituzte. Lan hauei hasera emateko frontisa harriz harri kendu zuten. Harri hauei zenbakiak jarri zitzaizkien eta ondoren ezker pareta bost metro luzatzeko erabili ziren. Frontis berria zementuz eraiki ondoren frontoiaren estaltze lanak hasi ziren.

Frontoiaren estalkia egurrezkoa da eta frontoia beraren luzera berdina duen egurrezko biga baten gainean kokatuta dago. Momentu

honetan estalkia jarrita dago baina horrekin ez dira egin beharreko lan guztiak amaitzen.

Festak amaitu ondoren beraz, lanean jarraitu behar dute, lehenengo teitlatua bukatzen eta ondoren frontoiaren zorua aldatzen. Pilotalekuan jarri beharreko argiak ere geroko utzi behar dute.

Urko Irastorza



Festetarako oharrak

Lazkaoko Udalak ohar hauek zabaldu ditu festetan kontutan hartuak izan daitezzen.

- 1.- Trafiko arazoak ahal den gehiena murrizteko, Senperetik aurrera bariantea ahalik eta gehiena erabiltzea.
- 2.- Orobioneko aparkalekua erabiltzea, plazako aparkalekua itxita egongo baita apirilaren 24tik maiatzaren 4ra.
- 3.- Danborradari bidea arintzearen, San Ignaziora doan bidean kotoxeak ez aparkatzea igandean, apirilak 26.

Besterik gabe festa onak pasa ditzazuela.

Euskalerrria, 34
AZPEITIA - ☎ 816179
 Elozegi, 2
LAZKAO - ☎ 887490
 San Inazio, 17
BEASAIN - ☎ 889707
 Grazineberri-e
ATAUN - ☎ 180364
 Sta. Maria, 1
ORDIZIA - ☎ 162320

Okindegia

**ERRATO
UNDI**

M. ARTOLA MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g
 ☎ 88 79 30

LAZKAO

Grupo Bateak SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Hirigoiien, 12
 Tfnoa.: 88 86 20
 Tfno. mugikorra: 908 57 91 92
 Faxe: 88 91 18
LAZKAO

JOXEAN KEREJETA LAZKAOTARRA, BASKONIA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Saskibaloian jokatzeko hasi nintzenean Lazkaon ez zegoen saskirik"

Beasaingo La Salle-Caf saskibaloia taldean eman zituen lehen urratsak Joxean Kerejeta lazkaotarrak, 15 urte eta ia bi metro zituela. 17 urterako bi metro eta zentimetro bateko altuera zuen, "Goerriko handiena izango nintzen". Gasteizko Baskonia taldera laster joan zen. 13 urte goren mailan jokatu ondoren, gaur egun Gasteizko Tau Baskoniako lehendakaria da.

Lagun bati esker hasi zen Beasaingo La Salle-Caf saskibaloia taldean jokatzeko. 15 urte zituen orduan. Joxean Kerejetak gogoratzen duenez, "saskibaloian jokatzeko hasi nintzenean Lazkaon ez zegoen saskirik. Pilotalekua eta futbol-zelai kax-



Joxeanek herriko jailetan hartzen du egun bat gutxienez, Gasteizko lagunekin bere jaioeterrira etortzeko.

kar bat besterik ez zeuden". Hastapeneko urratsak gogorak izan omen ziren. "Beasaingo Institutuan ikasten nuen eta egunean 3 joan-etorri egin behar izaten nituen oinez Beasaina; bi institutura eta bat entrenamentura".

2 urte egin zituen Beasainen eta laster joan zen Gasteiza. ACB ligan Real Madrid, Juventut, Cai Zaragoza eta Baskonian jokatu zuen, 13 urtez. "Ni hasi nintzenean Liga guztiko

zazpigarren jokalaririk altuena nintzen. Gaur egun, gure taldean bertan, seguruena ni baino altuagoak zazpi izango dira".

17 urte zituenerako bi metro eta zentimetro bateko altuera zuen. Saskibaloian jokatzeko ezaugarri oso ona baina eguneroko bizitzan, neurriko arropak eta oinetakoak aurkitzeko nahikoa lan izaten omen zuen. Momentu honetan ez omen dago, ordea, arazorik maila horretan.

Profesionalizazioa

Joxean saskibaloian jokatzeko hasi zenetik hona asko aldatu da kirol hau. "Orain dela 23 urte Gasteiza etorri nintzenean, Mendizorrotzan jokatzeko genuen. Gure taldeak 7 milioiko aurrekontua zuen orain 23 urte. Gaur egun ia 800 milioikoa du. Ikusleak ere gutxiago ziren. Garai hartan afizionatu mailan jokatzeko zen. Gaurko egunean dena oso profesionalizatuta dago. Diru asko dago, telebista ere hor dago... Momentu honetan futbola lehenengo kirola da eta bigarrena saskibaloia", argitu du. Dena den, saskibaloiak ezezik, kirolak ez zeukan gaur adina garrantzia. "Kirola azkeneko urteetan asko indartu da, telebistak eman dio indar gehiena".

Lehendakari

Urriaren hamar urte beteko ditu Baskoniako lehendakari delako. "Kirol giro barruan jarraitu nuen. Jokalari bezala ezin nuen jarraitu adi-

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 88 29 26
908 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO

OIARBIDE harategia

festa onak opa dizkizuegu

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
☎ 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15
☎ 16 05 16



Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
Tfnoa.: 88 20 49
OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

nagatik eta zenbait lesiogatik, eta entrenatzaile izatea ere ez zait sekula gehiegi gustatu. Ilusio handia neukan lagun batzuekin taldea osatu eta Baskoniaren alde lan egiteko. Aukerak bazeuden, Gasteizen saskibaloia giroa oso handia izan baita beti”.

Argi dauka dena den Joxeanek politena jokatzeko dela. “Satisfakzio gehienak jokatzeko ematen du. Direktibo bezala, partidu inportanteena irabazten duzunean ere, beti izaten dira arazoak buruan. Beti diru aldeko arazoak. Presioa izaten du lehendakari batek baina hemen baldin bagaude, gustoa bilatzen diogulako da”.

Euskaldun gutxi

Oso euskaldun jokalaria gutxi daude saskibaloian. Ez omen da jokalaririk ateratzen. “Futbolerrako errazagoa da baina saskibaloira-ko ateratzeko altuera behar da. Niri gustatuko litzaidake hamar euskaldunekin talde bat egitea. Baina pentsatu behar da lehenengo mailan egotea nahi izanez gero, lehiatu egin behar dela eta jokalaria onak be-



konkreturik ez zegoen, egun guztiak izaten ziren koadrila egunak”.

San Prudentzio jaiak aprobetxatuz jokatu izan du Baskonia saskibaloia taldeak hainbat partidu Lazkaon. Aspaldian ez dira etorri, ordea. “Zaila da jokatzeko. Aurten ezinezkoa da, egutegia oso bete baitauekagu”.

har direla. Euskaldunak ez badago, kanpotik ekarri behar dira”. Lazkaotarrak gaineratu duenez, “jokalaria gazteei aukera ematea oso zaila da. Beti presioa izaten da alde guztietatik, sponsorren aldetik, prentsaren aldetik, zaletuen aldetik... Gazteei aukera emateko beste proiektu bat behar da. Momentu honetan gazte batzuk baditugu eta pentsatu behar da datozen urte-

Gasteiztar bihurtua

24 urte dira ia Joxean Kerejeta Lazkaotik joan zenetik. Ez da gehiegi etortzen Lazkao aldera, ia familia osoa Gasteizen bizi baita. Baina herriko jaietan hartzen du egun bat gutxienez, Gasteizko lagunekin bere jaioterria etortzeko.

Gaztetako herriko jaiak nola gogoratzen dituen galdetu diogu. “Pelota partiduak beti izaten ziren, musika taldeak ere bai... Barrakak etortzen ziren... koadrilen egunik

tan euskaldun jokalaria gehiago izatea”.

Jokalaririk ez ateratzeko zein arrazoi egon ote litekeen galdetu diogu. “Momentu batean Bilbon, Donostian eta Gasteizen, ACBen, 3 talde izan ziren. Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeak desagertu egin ziren, Gipuzkoan Askatuak dago orain. Horrek agian gazteei ilusioa galtzea ekarri du. Askotan umeek kirol bat egite-

ko erreferentzia bat behar dute eta erreferentzia normalean izaten da, telebistan ikusten dutena edo gertuan daukan taldea ondo ibiltzea. Gipuzkoan eta Bizkaian momentu honetan futbola oso goian dago eta agian zerikusia izango du. Araban orain arte, ikastetxe guztietan, estatistiken arabera, saskibaloian jokatzeko da gehien eta ondoren futboleko. Orain Alavesa igotzen bada, ikusi egin behar”.

Beste hainbat kirolekin euskal selekzioen aldarrikapena egiten ari dira. Baina saskibaloian zailagoa dago Joxeanen esanetan. “Itxurazko selekzioa ateratzea oso zaila da. Selektzioa egiteko adina jokalaria badaude, baina selektzio ona egitea ez da posible. Baina gauzak hasi egin behar dira”.

Gasteizko Alaves futbol taldea denboraldi ona ari da egiten eta egunkarietan lekua kendu dio Baskoniari. Dena den, zaletuekin ez omen dute arazorik, pabiloia bete egiten da. Horren adibidea da, Araba pabiloia handitu egingo dutela.

LAZKAO
TABERNA

Ondo ibili festetan!

GURTZE, 6 ☎ 88 48 22 LAZKAO

OSAKI

- * Sendabelarrak
- * Naturopata
- * Masajista

Ana Mari Egea
☎ 88 93 62

Mikelar, I LAZKAO

ZUZENKI

AHOLKULARITZA
Hiribarren, 30
☎ 943 16 23 93
LAZKAO

- ♠ Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...
- ♠ Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!

ONDO PASA FESTAK!

Apirilak 24, ostirala:

20:00etan: VII. Gerriko Ikerlan Sarietako ikerlan sarituekin osatutako liburu-aurkezpena, Udaletxeko Areto Nagusian.

Apirilak 25, larunbata:

10:00etan: Jubilatuen ibilaldi neurtua, muga Lazkao Txiki Zelaian.

10:00etan: Areto-futbol partidua, Loinazpe-Lazkao-Oianguren.

11:30ean: Haur Alkate-Alkatesaren ongi etorria herriko gaztetxoei Udaletxeko balkoian, txupinazoa eta Zawopiko maskotaren aurkezpena.

12:00etan: Kadeteen saskibaloi partidua, San Benito-Askatua B Kiroldegian.

12:00etan: Haurrentzako jokoak Plazan.

14:00etan: Gaztetxo bazkaria San Prudentzio ikaste-



txeko aterpean.

15:30ean: Gaztetxo kalejira Antzar Gazteak txaragarekin.

16:30ean: Azkona pailazoak Plazan.

17:00etan: Neska arteko areto-futbola: Lazkao-Zaldibia.

17:30etan: Playbacka gaztetxoentzat, Plazan.

19:00etan: Senior saskiba-

loi partidua: Lazkao-Garbi.

19:00etan: Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

20:00etan: Drindots musika taldearekin dantzaldia.

23:30ean: Zawopiko maskotari agurra eta suzko zezena.

23:30ean: Drindots musika taldearekin dantzaldia.

Apirilak 26, igandea:

9:15ean: LV. Txirrindulari proba, 23 urtez azpiko eta elite mailakoa. **13:00etan:** sari-banaketa.

16:30etan: Antzizar arkitiroketa taldearen erakusketak Kiroldegian.

18:00etan: Herriko gaztetxo-erakundearen danborrada. Amaiera Plazan.

20:00etan: Amaia Zubeldia eta Ruth Arizmendi trikitilarien saioa, Plazan.

Apirilak 27, astelehena:

9:00etan: Bertako nekazaritza produktuen azoka berezia, Pelotalekuan.

16:00etan: Haurrentzako xake txapelketa, Kiroldegiko aterpean.

16:00etatik 20:00etara: Tirolina, zubi tibetarra eta puenting jauzia, Kiroldegian.

18:00etan: Prudentzio

Garin

OKINDEGIA

Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5

☎ 16 23 36 ☎ 88 04 33

LAZKAO | **ORDIZIA**

Loradenda

EGUZKI-LORE

- Andregai erramuak eta erregaliak
- Kotxe eta eliz apainetak

AMAREN EGUNEAN, MAIATZAK 3, GOIZEAN ZARALIK

Hirigoien, 24

☎ 88 49 65 **LAZKAO**

DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkizue!!

Hirigoien, 16

☎ 88 58 95 **LAZKAO**

PELLO BIDEGAIN

HARATEGIAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

☎ 88 93 57

Mikelar, 1 **LAZKAO**

UNAI

ARRANDEGIA

Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4

☎ 88 79 33 **LAZKAO**

MIKEL

OPTIKA

OPTIKARI
OPTOMETRISTA
DIPLOMADUNA

UKIPEN LENTEEN
EGOKIERA

Elosegi, 48

☎ 88 09 35 **LAZKAO**

ARRIARAN

MERTZERIA

Haurren jantziak

Hirigoien, 12

☎ 16 06 82 **LAZKAO**

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

AZKARATE

IBABE INDUSTRIALDEA

Tfnoa.: 88 81 01

LAZKAO



Deunaren ermitan Bezpera-
re elizkizunak.

19:00etan: Buruhandiak
Antzar Gazteak txistularie-
kin.

22:30ean: Lazkaoko Declive
eta Fist Fucking Rock talde-
en kontzertua, Plazan.

Apirilak 28, asteartea:

9:00etan: Goizeresia Antzar
Gazteak txistulariekin.

10:30ean: Prozesioa; kopo-
razioak, txistulariekin herri-
ko zaindariaren irudiari Pa-
rrokitik ermitara lagunduko
dio eta Orin Arin dntza talde-
ak agurra egingo dio.

11:00etan: Prudentzio Deu-
naren ermitan meza nagusia.
Lazkao Abesbatzak abestuko
du eta Udal Korporazioa ber-
tan izango da.

12:30etan: Xapre eta Zaha-
rra trikitilariak herriko kale-
tan zehar.

13:00etan: Herri-kirolak:
Mugerza, Elorriaga, Barbe-
rena, Aierbe eta Zelai.

17:30ean: Oin Arin dantza
taldea, Plazan.

20:00etan: Dantzaldia Ar-
kaitz musika taldearekin.

Apirilak 29, asteazkena:

11:00etatik 19:00etara:
Haurrentzako parkea, Pla-
zan.

19:00etan: XIX. Sardina ja-
na, Plazan.

19:30ean: Antzar Gazteak
txaranga herrian zehar.

19:30ean: Karate eta Aero-
bik Txikia Kiroldegian.

22:30ean: Patxi Kaleko tal-
dearen musika emanaldia.

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 2, larunbata:

10:00etan: XXII. Lazkaomendi Txirrindulari proba.

14:30etik 16:30era: Plater-tiraketa Lazkaomendin.

21:00etan: Auzo afaria.

23:00etan: Eider eta Oihana trikitilariak.

Maiatzak 3, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia, ermitan. Udal Korporazioa ber-
tan izango da.

12:00etan: Haur jokoak.

13:00etan: Mendizabal eta Lizaso bertsolariak. Ondoren
Epelde trikitilari anaiak eta txiste saioa.

17:15ean: Herri-kirolak: Arria V. eta Azurmendi aizkola-
riak eta Goenatxo II. harrijasotzailea.

18:30ean: Bertsolarien bigarren saioa, txisteak eta jarraian
Epelde anaiak.

Apirilak 30, osteguna:

12:00etan: Koadrilen irteera
Txalaparta txarangarekin.

18:00etan: Karaokea eta ze-
zen mekanikoa koadrilen-
tzat, Txalaparta txarangak
alaiturik.

20:00etan: Drindots musika
taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 1, ostirala:

10:00etan: Goizeresia An-
tzar Gazteak txistulariekin.

10:00etan: Eskualdeko VI.
Igeri lehiaketa Kiroldegiko
igeritokian.

12:00etan: Makailu lehiaketa
Plazan. Bertan Andoni
Arruabarrenaren omenez es-
ker agurgarria egingo da.

12:30ean: Alma Navarra jo-
teroak, Plazan.

16:00etan: Toka txapelketa,
Plazan.

18:00etan: XVIII. Dantza
Suelto txapelketa.

21:00etan: Erreka taldea,
Plazan.

22:30ean: Su artifizialak,
Caballerren pirokteniaren es-
kutik, Zubizkitza aldean.

Oilategia
Atxa

*Eguneroko
arrautza
ezin hobeak*

© 16 09 71
Elosegi, 25 **LAZKAO**


Mundu-Bi

**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

**HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 88 74 58
LAZKAO**



ZUREMOTO, C. B.
GAS GAS banatzaile ofiziala

Hiribarren Atze Poligonoa, 1
☎ 88 39 03 **LAZKAO**

MAIATZEKO LEHENENGO IGANDEAN EGINGO DA URTERO:

Gaztaren Eguna Idiazabalen

Maiatzaren 3an Gaztaren Eguna ospatuko da Idiazabalen. Egun osoan zehar gazta dastatu, erosi eta nola egiten den ikusteko aukera izango da. Idiazabaldarrek herriko hiru artzain zaharrenak omenduko dituzte. Aurtengoa estraineko Gazta Eguna izango da baina ez azkena; aurreratzean, urtero, maiatzeko lehenengo igandean egingo baita jai hau.

1996ko urriaren 27an izan zen Idiazabalen gaztari eskainitako azken eguna, baina hura berezia zen, Euskal Herriko Gazta txapelketaren XII. edizioa antolatu baitzen. Egun hartarako sortu zen azpiegitura aprobetxatuz udalak herriaren eta gaztaren izena bultzatzeko talde bat sortzea erabaki zuen. Euskal Herriko txapelketa antolatzeko lanean aritu ziren herritarren zerrenda hartu eta haiei proposatu zien udalak Gaztaren batzordea sortzea.

Hala sortu zen Gaztaren batzordea eta talde hori ari da maiatzaren 3ko jaia antolatzen. Antolatzailen esanetan, "herriaren izena eraman, eta horrenbeste lekturaino iristen den gaztak merezita duela uste dugu urtean zehar egun bat berretzat izendatzea. Leku askotan egiten dira txapelke-



tak edo lehiaketak gazta honen izenean, eta Idiazabalen orain arte ezer gutxi egin bada ere, garaia iritsi delakoan gaude". Batzordeak eskuartean egitasmo gehiago ere badu. Bata gaztagintzan eta artzantzan erabilitako tresnen bilketa eta erakusketa egitea; bigarrena, gazta saltzen duten dendetan kartel bereziak jartzea. Bigarren asmo hori gauzatzeko Gazta batzordekoak herriko dendariekin hartuemanetan izan dira. Bi asmo horiekin batera herriari buruzko informazioa biltzen duen triptikoa ere ia prest dago. Aurrera begira gaztarekin zerikusia duen

beste herri batekin anaikidetzeko asmoa ere badu Idiazabalgo udalak.

Maiatza da gazta ugariena eta onena egoten den hilabetea Gaztaren batzordearen esanetan. "Horregatik aukeratu da hilabete hori, hemendik aurrerako maiatzeko lehenengo igandean ospatuko da Idiazabalen Gaztaren Eguna". Izan ere, gazta izango da jaiegun horretako protagonista nagusia. Goizean dozena bat artzainek beraien puestoak jarriko dituzte plazan, horietan gazta dohainik probatzeko aukera izango da. Gaztaz gain, hainbat euskal jaki eta edari ere izango di-

ra salgai. Gazta nola egiten den ikusteko modua izango da goizeko 11etatik aurrera. Modu tradizionalean Domingo Goiburuk egingo du gazta eta modernoan, berriz, Jesus Aranburuk. Ardiei ilea nola mozten zaien ere erakutsiko da. Herritar bat, Benito Ezizola, eskuz, betidanik egin den moduan arituko da eta kanpotik etorritako beste talde batek gaur egun lan horretarako dauden aurrerapenak erakutsiko ditu.

Herritar guztien izenean herriko hiru artzainei omenaldia ere egingo zaie. Pilar eta Angel Imaz anai-arrebak eta Bautista Oiarbide izango dira aurtengo omenak. Antolatzailak jakinarazi dutenez urtero herritarren bati omenaldia egingo zaio Gaztaren Egunean. Bazkalarreko jaia omenaldiarekin eta Joxe Agirre eta Mañukorta bertsolarien saioarekin bukatuko da.

Arratsaldean herri-kirolak izango dira. Aizkolariak eta harrijasotzailak arituko dira. Arrospide eta Olasagasti, Larretxea eta Nazabalen aurka arituko dira. Harria jasotzen, berriz, Goenatxo.

Maiatzaren 3an guztia prest egon dadin antolatzailak herritar guztiei deia egin die igandean bertan edo bezperatik egin beharreko prestakuntza lanetan parte har dezaten. Euskal Herriko Gazta txapelketa antolatu zenean herritarrek emandako laguntza eskatzen dute oraingo honetan ere antolatzailak.

Xabier Urteaga

Égitaraua zehatz-mehatz

10:00etatik 14:00etara: Idiazabal Gazta debalde probatzeko aukera.

11:00etan: erakustaldia: gazta nola egiten den eta ardi mozten.

12:30ean: Joxe Agirre eta Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' bertsolarien saioa.

13:00etan: herriko artzain zaharrenak omenduko dira.


19:00etan: herri-kirolak Igarondo pilotalekuan. **Aizkoran:** Arrospide eta Olasagasti gipuzkoarrak Larretxea eta Nazabal nafarren aurka. **Harrijasotzen:** Goenatxo 200 kiloko errektangularra, 150 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bobilarekin arituko da lanean.

Benito Eziolaza: "Duela 30 urte 8 duro edo gehiago egiten zuen artile kiloak, gaur egun 4 duro"

Maiatzaren 3ko Gazta egun honetan ardi mozten jardungo da Benito Eziolaza idiazabalدارra. "Eskolaren partez ikasitako ofizioa da niretzat ardi mozte" dio.

Udaberrian, giroa berotzen hasten denean, mozten zaie ilea ardiei. Ekainean hasi eta Sanpedrotarako denak moztuta izaten omen zizuten. Gaur egun mendira joaterako mozten zaie eta Benito ez dago oso konforme horrekin. "Lehenago moztuz gero, katarroak eta belarriak hazita izaten dituzte hotzarekin. Ardiaren defentsa ilea bera da".

Emakumeak ilea tintatzten dueneko adibidea jarri digu Benitok, ardiari ilea nola mozten zaion adierazteko. "Ebaki batzuek egin behar dira. Azaletik ile zaharra soiltzen edo despejatzten joaten da. Emakume adineko batek ilea tintatzten



Benito Eziolaza.

duenean, hazi ahala, bere koloreko ilea ateratzen zaio. Kasu honetan, udaberrian, ardiei berria ateratzen zaie. Kapa zaharra mozten zaie ardiei".

Lehengo ardiak txikiagoak zirenez 2 kilo artile izaten zuten; gaur egunekoek 3 bat kilo. Garai batean oso estimatua izaten zen artilea, "ezkonberrientzako koltxoiak egiteko artile asko saltzen zen. Duela 30 bat urte, 8 duro eta gehiago ere egiten zuen kiloak; gaur egun 4 bat duro. Artilea erre ere egin izan da, gutxi ordaintzearekin galera iza-

ten baitzen artzainarentzako".

Era zaharrean, guraizeekin mozten dituz ardiak Benitok. Makina elektrikoak guraizeek baino gehiago urratzen omen du azala. Duela 15 bat urtetik hona apartatua dauka lan hori, baina urtero 20 bat ardi mozten ditu.

Betiko artzaina

Benitoren aitona zena eta aita bera ere artzain izandakoak dira. "Aita zena 86 urterekin hil zen eta bizi izan zen guztian ardiak eduki nahi izan zituen, doxenerdi bada ere. Beti laguntzen nion. Anaia bat ere badut artzain". Ameriketara joateko esan zioten Benitori, baina fabrikari hastera nahia go izan zuen.

61 urte ditu eta duela 15 bat urte utzi zion artzantzari, baina beti inguruan ibiltzen da. Urbian oraindik ere ibili ohi da ardiei sarnaren aurkako botika ematen.

Artzainak alperraren fama omen du, baina Benito-

rentzat oso bizimodu lotua da. Artzantzaren etorkizuna, gaztan ikusten du. "Gaur egun ardiko subentzioak ematen dituzte erakundeek eta horri eskerrak hobeto dabilta artzainak. Subentzio hori kenduz gero, akabo. Arkumea saltzea ere asko kostatzen da eta prezio merkea egiten du. Gaztak egitea da etorkizunik onena", dio idiazabalدارrak.

Orain gazta hobeak

Gaztak gainera, gero eta hobeak egiten dira Benitoren esanetan. "Zaharrak errespetatu egin behar dira, baina oraingoek gazta hobeak egiten dute. Teknika berriak sartu dituzte, garbitasuna eta tenperatura batez ere oso kontutan hartzen dituzte. Elikadura ere zaintzen dute". Hala ere, Idiazabal gaztari fama jarri ziotenak Idiazabalgo artzain zaharrak izan omen ziren: bere aitona, Goiburutarrak, Elorza eta Oiarbide. "Izen handia eman zioten gaztari, Madrila eta Bartzelonara asko saltzen zuten".



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea	Esteban Lasa, 7
☎ 88 40 57	☎ 88 80 29
ZALDIBIA	BEASAIN

Idiazabal Gazta berriaren aurkezpena maiatzaren 6an Ordizian

Artzantzari eskainitako Ordiziako azoka berezia apirilaren 15ean izan bazen ere, Idiazabal Gazta berriaren denboraldiaren hasiera ofiziala maiatzaren 6an izango da. Karlos Argiñano sukaldari beasaindarrak izango du Udaletxeko Batzar aretoan lehenengo gazta ebakitzeko ardura.

Ordiziako azokaren barruan Artzain eguna ospatu zen apirilaren 15ean, Ordiziako Udalak, Enirio-Aralar Mankomunitateak, Goime- nek eta ELEk (Gipuzkoako ardi latxa elkarteak) antolatuturik. Lehenengo aldiz latxa arrazako aharien lehiaketa eta erakusketa izan zen Arboledan. Mutur gorri eta beltzeko aharien lehiaketan 70 artzainek hartu zuten parte. 34 Aralarreko artzain izan ziren eta guztira 120



Apirilaren 15ean ospatu zen Artzain eguneko argazkiak.

buru inguru aurkeztu ziren morfologia lehiaketara. Epaimahaikoek sei sari banatu zituzten, aharien arraza kontuan izanik. Amezketako Anastasio Balerdi, Amezketako Frantzisko Lertxundi, Altzoko Resurreccion Balerdi, Amezketako Goñi anaiak (bi aldiz) eta Ataungo Jose Mari Goi-koetxea izan ziren sarituak.

Beste lau sari ere banatu ziren. Selekzioz egindako esne kontrola saria mutur gorriko aharien atalean Oñatiko Nikolas Segurolak irabazi zuen, eta mutur beltzetan Ordiziako Matias Arsuagak. Esne Kontrolean



emandako saria Elgoibarko Jesus Ansolarentzat izan zen. Diario Vasco egunkariak emandako bi sariak azkenik, Amezketako Anastasio Balerdirentzat eta Oñatiko Nikolas Seguralarentzat izan ziren.

Ahariez gain, artzantzari lotutako beste hainbat ikus-kizun ere izan zen azokan. Arantzazuko Artzain Eskolako ikasleek, Amelia Jaur-regi artzain gabiriarrarekin batera, gazta nola egiten den erakutsi zuten. 11,30ak pasatxo zirela, berri, ardi mozten aritu ziren, era tradizionalen eta modernoan. Arkumea eta gazta bera dastatzeko aukera izan zen hainbat postutan.

Gaztaren aurkezpena

Aurreko urteetan Artzain egunaren barruan egin bada ere Idiazabal Gastaren denboraldi berriaren aurkezpena, aurtan hamabost egun beranduago egingo da. Maiatzaren 6an, hain zuzen ere.

Urtero sukaldari ospetsu batek ebaki du denboraldi berria adierazten duen gazta. Juan Mari Arzak, Pedro Subijana eta Hilario Arbelaitz izan dira aurreko edizioetako gonbidatuak. Aurtan, ohorea, Karlos Argiñano beasaindar sukaldariak izango du.



*Lere apainketa
mota guztia
egiten dira*

- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa

**ENKARGU ETA ENTREGAK
AMAREN EGUNEAN
MAIATZAK, 3**

☎ 943 88 98 83
Geltokiko kioskoa **ORDIZIA**

interlang

International Language Services



Ingles, frantses eta aleman ikastaroak gure eskola eta enpresetan



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorik



Itzulpen gintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian: Irakasle goa eta begiraleak U.S.A.-n; ostalaritza eta abar

ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

DONOSTIA
Kolon, 5
☎ 27 81 61

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

ORDIZIA

Apirila eta maiatza bitartean euskararazko zine zikloa gozatzeko aukera izango dute, bai haur eta baita helduek ere. Izan ere, Udaleko euskara azpibatzordearen eskutik, Herri Antzokira hainbat euskarazko filme ekartzea lortu da, piskana-ka-piskana filmeak euskaraz ikus-entzuten ohitu gaitezten. Dagoeneko bi filme ikusteko parada izan da, 'Megasonikoak' bata (orain gutxi Europako animazioko lehen saria jasotakoa) eta 'Xagu txiki, Xagu maite' marrazki bizidunen filme suediarra bestea.

Asteburu honetatik aurrera beste 4 ikusteko aukera izango da. Igandean, hilak 26, 'Anna, Anna' filme alemaniarra eskeiniko zaie haurrei; maiatzaren 1etik 4ra bitartean, berriz, 'Wallace & Gromit, mozketa sakona' marrazki bizidunetako filme ingelesa; maiatzaren 10ean 'Gezi urdina' marrazki bizidunen filme italiarra; eta azkenik, maiatzaren 17an 'Rainbow' Kanada eta Britania Handiko abenturazko filmea botako dute. Guztiak ohiko orduetan izango dira.

Azoka bereziak

Asteazkeneroko ohiko periez gain, urtean zehar egiten diren azoka bereziek orain arte izan duten arrakasta ikusita, udaletik berarek indartzearen aldeko



apostua egin dute aurtengorako. Aurreko asteazkenean bertan izan genuen 'artzai eguna' eredu gisa, izan ere jende ugari bildu baitzen ahari eta ardiak ikusiteko asmoz. Honez gain, beste 9 azoka berezi ere izango dira urtean zehar, jarraian doazkizuenak hain zuzen: maiatzaren 16 eta 17an 'Ertaroko feria'; maiatzean bertan artzantzari buruzko beste bat egiteko asmoa dago; ekainaren 13an 'Mugazgaindiko azoka' izango da; hil berean, baita ere sukaldaritzari buruzko zerbait egingo da; uztailerako, berriz, gaztari eskainitako azoka berezia aurrikusten da; irailaren 9an ohiko eskal festei dagokiona izango da; urriaren 16, 17 eta 18an, aldiz, kulturarekin zerikusia duen bat egingo da; azaroaren 14 eta 15ean ardoari es-

kainitako azoka izango da; eta azkenik, abenduaren 23an 'Gabonetako feria'.

Erakusketa Barrenan

Apirilaren 18tik maiatzaren 6a bitartean Joxe Miel Barandiararen omenez zenbait idazle eta artistek elkarrekin egindako erakusketa ikusgai egongo da Barrena Kultur Etxean. Oro har, esan liteke, aukezten dena "arte liburu" bat dela, non lan guztiak Barandiaranen irudia gogoratzeko pentsaturik egin diren. Lan hau hamalau irudi, hamar idazki, izenburu orri bat eta amaiera orri batez osatua dago, guztiak ere areto osoan zehar hedatzen diren lamina handi batzuetan aurkeztuta. Erakusketa ikusgai egongo da astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:30era bitartean, larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta jaiegundetan 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Donostiako Orfeoia

Musikazaleok une atsegin bat pasatzeko aukera bikaina duzue larunbat honetan, hilak 25. Izan ere, Donostiako orfeoia kontzertua eskeintzekotan da eliz parrokiaren arratsaldeko 8etatik aurrera.

Informatika ikastaroa

Jakintza Ikastolak ikasle ohi eta gurasoei informatika ikastaroa, Windows eta

World, eskeiniko die maiatzaren 4tik 8ra bitartean, arratsaldeko 6etatik 8etara, 1.500 pta.ren truk. Interesaturik bazeunde Ikastolara deitu besterik ez duzu, 160540 telefono zenbakira.

Kirolak

Herriko talderik garrantzitsuenek ez dute oraingoan berri onegirik eskaini. Aurreko alean aipatu genizuen rugby taldeak egindako kanpaina onaz. Dena den, igoera faseko lehen kanporaketan huts egin eta orain FER deritzon kopan murgilduta dabil.

Futbolearen, berriz, Pefrente mailako azken postuetan murgilduta dabil Javi Fernandezek entrenatzen duen taldea. Liga amaitzeko 6 neurketa falta direnean urrutira ikusten dira kategoria mantentzeko balio duten postuak, eta ziurrenik datorren urtean, Lazkao-Ordizia arteko bertako derbien orde, Ordizia-Segura artekoak ikusi beharko ditugu.

Saskibaloian ere gauzak beltz. Denboraldi osoan bururik altxatu ezinik ibili eta gero, hauek ere mailaz jais-teko zorian daude. Gustavo Salamancaren mutilei 2 norgehiagoka geratzen zaizkie eta hauek irabaziz gain, gainontzeko emaitzen zain egon beharko dute.

Aitor Calvillo



AURPEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



SEGURA

'Segurako Dendari Elkartea' sortu da

Herriko dendetan kontsumitzen dutenak, adineko jendea, kotxerik gabea eta kontzientzia piskat duena dira batik bat, dendarien esanetan. Zeraindar eta mutiloak asko erosketak egitera Segurara etorri ohi den bezala, herritar askok kanpora jotzeko joera izan du. Gainera, azken urteotan gune komertzial handiak ireki izanak, batzuentzat gutxiengo beste batzuentzat gehiengo, salmenten jaitziera ekarri du, herriko zerbitzuen sektorea larri kalte-tuz. Egoerak behartuta, 30en bat urteren ondoren, herriko 9 dendak elkartu eta ondorengo ekimenak jarri dituzte martxan:

Udalari eskaria: salmenta ibiltaria kontrola dezan, udaleko zerbitzuek egiten dituzten erosketak herrian ere egin ditzaten -elkarlana bultzatuz- eta herritarren arteko kontzientziazio kanpaina bati ekiteko babesa eskatu.

Zozketa txartelak: 500 pezetako erosketa bakoitzagatik 30.000 eta 20.000 pezetako jenero-txartelen bi sari zozketatuko dira. Txartela, izen-abizenak jarrita, denda bakoitzean jarriko den kajatxoan bota beharko da. Ekainaren 3. aste aldera egingo da lehen zozketa eta abenduan bigarrena.

Irizpideak bateratu: ordutegiak, jai egunak, opor-rak,...

Herriarrei inkesta

'Segura aztergai' plataforma, 'Aldaize' lan taldea izango da aurrerantzean. Esku artean dituzten ekimenen artean, aste honetan buzoneatzekoak ziren inkesta dago. Herriarren sentimen-

dua eta nahia jakiteko asmoz, 21 galderaz osatutako inkesta osatu dute, norberak bete eta korreoseko buzoian bota dezan. Honen emaitzak jaso bezain pronto kale-ratu egingo dituzte. Aurrerantzean, herri txikien egoeraz eta etorkizunaz hitzaldia antolatzeke asmoa dute. San Joanetarako, berriz, herriko maketa eta argazkien erakusketa eta diapositiba emanaldia.

Kirol eskolarra

Tenisa: neska eta mutil alebinek Gipuzkoa mailako final laurdenak jokatu-ko dituzte. Neskak, apirilaren 25ean, goizeko 11,30etan oñatiarren kontra etxean. Mutilek ere zapatuan jokatuko dute baina Oñatin.

Mendi irteera: apirilaren 26an Mandubitik Murumendira joango dira Laiotz Herri Eskolakoak Zegamako Aitzurikoekin batera. Irteera, goizeko 8,30etan plaza-tatik.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Kadeteak: *kopa: Ordizia 1-3 Aizkorri.* **Asteburuan etxean:** **Infantilak:** Aizkorri-Aretxabaleta, jai- en, 11:30ean. Argazkian jub- enilen taldea.

Pelota

Herenegun, apirilak 22, zen Gipuzkoako XXXI. Herriar- teko txapelketaren zozketa izatekoa. Asteburu honetan jokatu-ko dira joaneko parti- duak. Kanporaketak astero izango dira. Kadeteetan (16 urte arte) Garikoitz Oiarbi- dek, Mikel Imazek, Xabier Etxeberriak eta Unai Lope- tegik dute jokatzeko aukera. Jubeniletan (18 urte arte) In- ge Olanok, Eki Albisuk, Ibai



Beheko barrioko eguna

Santa Kruz maiatzaren 3an bada ere, bezperatik hasita ospatuko dute beheko barriokoek -Bolalekutik beherakoek- euren urteroko eguna.

Auzotarren afaria: zapatuan, maiatzaren 2an izango da Guraso Elkartean. Izenak, aurrez, Antonkalenen edo Jer- manenen eman behar dira.

Meza: maiatzaren 3an, goizeko 8,30etan emango da au- zoan hildakoen alde Beheko Kurutzan. Ondoren, ingura- tzen direnentzat, Jermaneneko sukaldean egindako kafea banatuko da gaileta eta anixarekin.

Txirrindulari proba: Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta, Jabier Ormazabalaren oroimenez, jubencil mailako XXIV. Gurutze Deunaren proba korrituko da. Goizeko 9,30etan irtenda 96 Km egin ondoren 11:56erako espero da amaiera. Txirrindulariek helmuga baino 4 Km lehenago Liernia igo beharko dute Ormaiztegi aldetik. Guztira, 120 txirrindulari inguru espero dira, horien artean Alex Rekon- do eta Jon Garziandia herritarrek.

Toka: karrera ari den bitartean, 12:00ak aldera hasita, herritarrentzako toka saioa izango da Jermanene aurrean.

Argazkian, meza ondorenean kera egiten.

Telleriak eta Uritz Gonzale- zek dute jokatzeko aukera. Afizionatueta Jon Ander Hombrek jokatu-ko du aurre- an eta Ibon Etxeberriak atze- an. Ordezkoak Iñigo Otegi eta Egoitz Berasategi.

Intxaurrendoko torneoan afizionatu mailako finalau- rrekoa jokatu-ko du Jon An- der Hombrek, Castellanos lagun duela, Carrete eta De Santosen aurka. Ibon Etxe- berriak ezin izan zuen Mikel Perizenarekin batera fina- laurrekoetara heldu, Carrete eta De Santosen aurka 22 eta 20 galdu ondoren.

Labur-labur

● Lazkaoko festak aprobe- txatuz, 1958, 59, 60, 61, 62, 63, 64, 65 eta 66an jaiota- koek urteroko **kinto afaria** izango dute apirilaren 25ean.

● Maiatzaren 10ean izango den **Herri Urratserako** au- tobusa antolatuko du Elorri Kultur Elkartek. Izenak Elorripe tabernan eman be- har dira.

Joseba Telleria

LAZKAO

Gurutze Taberna txapelkun futboleant

Herriko festak hastear dau-den honetan, ugariak izan dira aurreko aste honetan burutu diren ekintzak. Esate baterako aurreko larunbatean, hilak 18, Lazkaoko koa-drilen arteko futbol txapelketaren azken partiduak jo-katu ziren. Lehenik 3 eta 4. postuak zeinentzat izango ziren erabaki zuten Seapo-tok eta Txafilis Boys talde-ek. Norgehiagoka honen emaitza 10-5 izan zen Txa-flis Boysen alde eta hauen-tzat izan zen, beraz, 3. pos-tua.

Txapelketako finala Gu-rutze Taberna eta Garajes Lazkao taldeen artean izan zen. Partidu gogor baten ondoren Gurutze Taberna taldea izan genuen garaile 7-3 emaitzarekin. Esan be-harra dago merezi zuela tal-de honek garaipena, liga moduan jokaturako lehe-nengo fasean ere beraiek izan baitziren onenak. Bes-talde txapelketako golegile onena aurrean ere Seapotok taldeko Aitor Eguren izan da eta gol gutxien jaso duen atezaina, berriz, Gurutze Taberna taldeko 'Santa' or-maiztegiarra.



Txapelkunak finala hasi aurretik.

Lazkaoko Ekimenaren festa

Egun berean Lazkaoko Eki-menak festa antolatu zuen herriko plazan. Bertan, bes-te gauza batzuen artean, euskal presoek egindako es-kularen erakusketa jarri zu-ten. Giroa alaitzeko, berriz, Antzar Gazteak txaranga, Xapre eta Joxe Antonio tri-kitilariak eta herri-kirol era-kustaldia ere izan zen.

Arratsaldean zehar Laz-kaoko talogileek eginiko ta-lo goxoez gozatzeko aukera ere izan zen. Jende dezente bildu zen arratsalde pasa eta

ederki asko pasatu ere bai gehientsuenek behintzat.

Lazkaoko Ekimenak an-tolatutako ekintzak gaur amaituko dira oraingoz. Gaur ostirala, apirilak 24, Lazkaoko kiroldegian ber-tso saioa egongo baita gaue-ko 10,30etan. Bertan Jon Maia, Jon Sarasua, Xabier Amuriza, Imanol Lazkano, Iñaki Murua eta Aitor Sa-rriegi bertsolariek abestuko dutelarik.

Gerriko Ikerlan Sariketa

Gaur bertan, apirilak 24, arratsaldeko 8etan VII. Ge-rriko Ikerlan Sariketan ira-bazle izan ziren liburuak aurkeztuko dira Udaletxeko Areto Nagusian. Hauexek dira aurkeztu behar dituzten bi liburuak, 'Jose Felix Amundarain Muxika (Zega-ma, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko euskal idazle eze-zaguna' Pello Joxe Aranbu-ru, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezolak idatzia eta 'Zega-mako euskara' Joxe Migel Azurmendik idatzia.

VIII. Gerriko Ikerlan Sa-riketaren epaia maiatzaren amaiera aldera emango da jakitera eta horren berri izango duzue hurrengo ale batean.

Urko Irastorza



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96



- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Elosegi, 16

☎ 88 65 00 - Faxe: 88 79 71

LAZKAO



NEGUERUELA
BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA

☎ 16 08 30

Hirigoien, 12

LAZKAO

BEASAIN

1967an sortu zen Loinaz Txirrindulari elkarte, Gipuzkoako laugarren txirrindularitza elkartetik zaharrena. Garai hartatik lanean dira, inguruko gazteei txirrindularitzan aritzeko aukera emanaz eta hainbat frogatan antolatuz. Hasi berria den denboraldi honetan antzeko asmoekin dira.

Lau mailatako taldeak izango dira aurtengo. Infantiletan 11 mutil izango dira Iñaki Telleriaren agindupean; kadeteetan 14, Mikel Navaroren ardurapean; eta 15 jubenil izango dira Arkaitz Arzallusekin. Txirrindulari hauek guztiak goierritarak dira, besteak beste maila hauek fitxaketarik ezin delako egin. Maila hauek antolatzen dituzten taldeak izango dira nagusi, eta bidebatez gazteei kirolerako aukera ematea.

Afizionatuen taldea 15 gizonen osatzen dute, Pello Garaialde eta Xabier Alda nondoren agindupean. Eta bi goierritar baino ez dira: Beñat Garaialde eta Txomin Bartolome beasaindarrak. Pello Garaialdek azaldu digu horren zergatia: *"Duela 3 urterarte promozio lan hutsa egiten genuen, baina txirrindulari onenek beste taldeetara aldegitzen zuten. Ondorioz, kalitatearen apustua egitea erabaki genuen. Egutegi estatuala egiten hasi ginen eta horrek kalitatea eskatzen du; gainera afizionatu bakoitzeko 700.000 pezetako kostua du, horrek jende oso ona bakarrik edukitzera behartzen gaitu. Bestalde, ONCerekin akordio bat ere badugu, interesgarri iruditzen zaizkien mutilak bidaltzen dizkigute".* Taldearen helburua profesionalak sortzea da, azken urteetan Odriozola eta

Elizabururekin gertatu den moduan.

Emaizta aldetik, iaz afizionatueta 13 garaipen eta jubeniletan 19 lortu ziren. *"Hori errepikatzea ia ezinezkoa da, nahiz eta afizionatueta inoiz baino talde hobeak dugun eta jubenilak ere probintziako onenetakoa diren. Dena den, funtsezkoena ondo lan egitea da, hala eginez gero emaitzak iristen dira"*, dio Garaialdek, elkarteko lehendakariordeak.

Honetaz aparte, urteroko 6 proba antolatuko ditu S.C. Loinazek: Loinatz klasikoa, 2. mailako afizionatuena, jubenil eta kadete frogak, eta beste bi infantiletan.

Ikastaroak

Azken boladan hainbat ikastaro burutzen ari dira Ezkia-

ga Auzo etxean, eta datozen asteotarako beste bi iragarritzen zaizkigu: ipuin kontalarien ikastaroa eta saskigintza ikastaroa.

Ipuinak kontatzen ikaste-ko kurtsoa apirilaren 28an hasiko da eta astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara, 20 ordu osatu bitarte. Matrikula 5.000 pezetakoa izango da, baina Ezkiaga Auzoko Liburutegian praktikak eginez diru hori berreskuratzeko aukera izango da.

Saskigintza ikastaroa, berriaz, maiatzaren 5ean hasiko da. Asteartero emango da arratsaldeko 5etatik 7etara eta bi hilabetez luzatuko da. Izen emateko edo informazio gehiagorako Ezkiaga Auzo etxera jo dezakezue, arratsaldeko 5etatik aurrera (943-161024).



Odol-emaileen egoitza berriua

Apirilaren 17an inauguratu zen Ubi-Etxeko odol-emaileen egoitza. Handitu egin dute, beheko solairua egokituz. Itxarongela eta medikuen gelak jarri dituzte bertan. Goiko solairuan, odola ateratzeko gela ere handitu egin dute, ohatila edo kamila gehiago jarritz. Era honetan, erosotasuna eta azkartasuna bermatu nahi izan dituzte. Inaugurazioan, Juan Carlos Redondo Gipuzkoako Odol-emaileen Elkarteko lehendakaria eta Jon Jauregi alkatea izan ziren gonbidatuak. Redondok adierazi zuenez, egoitzaren berrikuntza lanak baino garrantzitsuagoak, odol-emaileak beraiek dira, egunero bizi asko salbatzen dituztelako. Inbertsio berri honek Udalaren, Kutxaren eta CAFen laguntza izan du.

Filmeak euskaraz

Eusko Jaurlaritzaren eta zenbait udalerriren elkarlanaren ondorioz, gaurkotatutako zenbait filme euskaratu dira, erdarazko estrainaldiak batera iritsiko direnak zinemetara. Usurbe Antzokian, oraingoz, hurrei zuzendutako 3 filme ikusi ahal izango dira, larunbat arratsaldeko 5etan, 300 pezetako sarrerarekin. Bihar arratsaldean izango da lehen zita, 'Sagu txiki, sagu maite' marrazki bizidunetako filme suediarren proiektioarekin. Ondoren, maiatzaren 9an, 'Wallace eta Gromit' ikusi ahal izango da eta 16an 'Supersonikoak' euskal proiektioa.

Irakurketa suspertzen

Irakurketa suspertzeko kanpaina burutzen ari dira Udaletik, eta honen inguruan zenbait ekimen prestatu dira. Honela, pasa den astelehenean eta maiatzaren 3ra arte erakusketa izango da Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan, 'Liburua nola egiten den' azaltzen duen erakusketa didaktiko eta gidatua. Ordutegia: lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaieguneetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Bestalde, apirilaren 30ean, hitzaldia izango da Udal liburutegian, 19:00etatik aurrera. Bittor Moreno pedagogoak 'Zergatik irakurri' gaia izango du hizpide.

Jon Mikel Cuñado

1998ko Loinatz Jailetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan, Jon Mikel Cuñado izan da garaile.

Aitor Arrue



PROFESIONALAK ZURE ZERBITZURA



EZIN, gaixo, elbarritu eta hirugarren adinekoei zuzenduriko etxerako ongizate eta osasun zerbitzua. Zuk behar duzun guztian laguntzen zaitugu: etxeko garbiketak, norberaren garbitasuna, jatorduak, lagunarte ederra eta botiken jarraipena, bai zure etxean edo osasun etxeetan, bertan egonez gero.



GURE LANTALDEA klinika laguntzaileek eta esperientzia eta profesionaltasun haundiko erizainek osatzen dute.



ORDUTEGIA, gure zerbitzuak egunak dituen 24 orduak irauten du, asteko 7 egunetan, igande eta jai egunak barne.

Zuk zeuk aukeratu dezakezu komeni zaizun ordutegia eta zure beharren arabera alda dezakezu, edozein unetan.

GOGORATU

- ★ GEHIAGO ORDAINDU GABE, KALITATE HOBEA.
- ★ ESKAERA ORRIRIK BETE GABE, ZURE DIRU SARREREN AGIRIRIK GABE.
- ★ LAN PROFESIONALAREN GARANTIA.
- ★ EGUNEAN 24 ORDUKO ZERBITZUA, ASTEAN 7 EGUN



Kale Nagusia (Ibañez
kafetegiaren parean)

BEASAIN

☎ 943 16 21 04

LAGUNTZAILEAK



esparru

EUDEL

AIKERA PRIVATUA GOIERRIN



Idiazabalgo Udala

Idiazabalgo Udalak egun-pasa polita egiteko gonbidapena luzatzen dizue goieritar guztiei. Gazta doan probatu ondoren izango da zer ikusia egun guztian zehar.

MAIATZAREN 3an
GAZTAREN JAIA
Zatoz Idiazabala!

- ✓ Gazta probaketa eta nola egiten den erakusketa
- ✓ Bertsolariak
- ✓ Omenaldia
- ✓ Herri kirolak
- ✓ Euskal jaki eta edariak
- ✓ Trikitixa



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)



Arg.: Fotoetxe.

Herriari buruzko informazioa biltzen duen triptikoa laster izango da herritarren eta Idiazabal bisitatzera etortzen direnen eskutan. Gaztaren batzordea aritu da triptikoa egiten eta maiatzaren 3an ospatuko den Gaztaren egunerako prest egoitea espero dute.

San Migel eliza, Txome-naneko parkea, Ursuaran auzoko Ola baserria eta Oiarbideko dorretxearen argazkiak daude besteak beste bilduta. Herrian dauden zerbitzuak eta zein jaiegun ospatzen diren ere agertzen dira. Artzantzak eta gaztak Idiazabalen izan duten garrantzia azpimarratzen da.

Triptikoa etxez etxe banatuko da eta Idiazabalgo

gazta saltzen den dendetan ere jarriko dituzte kanpotarrek herriko informazioa eskura izan dezaten.

Kutxaren aurkako eraso

Apirilaren 10ean lau ezezagunek Kutxak Idiazabalen duen bulegoa erre zuten. Ondorioz Kutxa dagoen eraikineko eta ondoko etxe-ko bizilagunak beraien etxeetatik atera beharra izan zituzten. Suaren eraginez Kutxaren bulegoa ia erabat erre zen.

Udalak pleno berezia egin zuen apirilaren 16an gertatutakoa aztertzeko. Plenoan hiru puntuko komunikatua adostu zuten. Lehen puntuan komunikatuak dio horrelako ekintzen



Mendiko Olinpiada

Aloña, Andoni eta Lierni Galarragak eta Tomas Aldasorok osatutako taldeak irabazi du Mendi sailak antolatutako olinpiada. Hirugarren proba irabazita lortu du garaipena taldeak. Proba horretan ibilbide bat proposatu beharra zegoen, ondoren mendi elkarteko kideek egin zuten ibilbidea. Irabazleek proposatu-

tako irteera herrian bertan egitekoa izan zen. Ursuaranen abiatu eta bertan herriko gazteek auzolandegian garbitutako kaltzada zaharrean gora, Etxegarate gainera igo ziren bidean dagoen ursaltoa bisitatu. Ondoren Aitxorrotza har-kaitza zeharkatuta Lizarditik barrena Ursuarana jaitsi ziren.

Irabazleek jakinarazi dutenez ibilbide honen arrazoia ondokoa da: "beti urrutiko intxaurrei begira egoten gara, mendi altu eta originalen bila ibiltzeko ohitura handia dago, baina herrian bertan ditugun leku zoragarriak ez ditugu ezagutzen".

Bigarren postua Maitane Urteagak eta Jon Esnaolak osatutako taldeak lortu du.

bidez giza-harremanak hondatzea besterik ez dela lortzen. Bigarren atalean elkartasuna adierazten zaie kaltetutako bizilagunei.

Idiazabalgo Kutxako arduradunak jakinarazi duenez, konponketa lanek bi hilabete iraungo dute. Epe horretan zerbitzua bulegoan bertan emango da baina or-

dutegia murriztu egin dute; goizeko 9etatik letara egingo da zabalik.

Kutxak helerazitako oharrean sua itzaltzen lagundu zuten guztiei eskerrak ematen zaizkie eta ordutegi berriak sor ditzakeen trabak barkatzeko eskatzen da.

Xabier Urteaga

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



☎ 88 55 00 ORDIZIA

VOLVO



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN




ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 88 03 15



Badugu gabiritarrok maki-na bat arrazoi pozik egote-ko elizaren konponketa de-la eta. Aurrekontua aurkez-teko behar ziren bi milioiak berehala jarri zituzten her-ritarrek eta Diputazioan aurkeztu ondoren bertako agintariek onartu eta lanei ekiteko baimena eskuratu dugu jadanik.

Proiektuaz gain, arazo nagusia teiltatuarena zen eta

beraren aurrekontua hoge-i-ta hamabost milioi inguru-koa zenez, herritarrei ba-koitzak ahal zuenaren ara-berako dirulaguntza eskatu zitzairen eta eman duten erantzuna benetan txaloga-rria izan da. Izan ere, herri-tarren ia ehuneko ehunak adierazi baitu berari ego-kien datorkion eran hiru ur-tetan zehar kuota jakin bat ordainduko duela eginki-zun horretarako.

Diputazioan eta Gotzai-tegian hau jakitean nahiko harriturik geratu ziren erantzun hori ikustean eta prest agertu ziren teiltatuko lanaz gain beste zenbait konponketari ere ekiteko eta horretarako beste aurre-kontu batzuk aurkeztu di-tuzte Eliz Batzordekoek orain dela egun gutxi.

Herritarrek eman duten erantzuna benetan bikaina izan arren, gastu horiek guztiak ordaindu ahal izateko, herrian jaio baina kanpoan bizi direnei ere di-rulaguntza eskatzea erabaki zen eta eskutitzak luzatu ondoren, badirudi horien erantzuna ere orain arteko-en antzekoa izango dela.

Horrela bada, udazkena-ren hasiera aldera ekingo zaio teiltatua konpontze-ari eta ondoren eliza barrutik zertxobait txukuntzen aha-leginduko dira.

II. argazki lehiaketa herritarrentzat

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten gabiria-rrek maiatzaren 9a baino lehen aurkeztu beharko di-

tuzte, gutxienez lau eta gehienez sei argazki be-raien negatiboekin batera, udaletxean.

Gaia Gabiriako herriare-kin identifikatu daitekeen edozer izan daiteke: pai-saia, baserriak, ohiturak, pertsonaiak...

Sariak hiru izango dira eta maiatzaren 17an edo ja-kinaraziko dira zein diren irabazleak. Zehaztasun gehiago nahi duenak jo de-zala udaletxera edo harre-manetan jarri Kultur Batzordekoekin.

Mus txapelketa Osinalde elkarte

Datorren larunbatean, api-rilak 25, jokatu da Osinalde elkarte XX. Mus Txapelketa iluntzeko 9etan. Hiru usteletara eta zortzi erregetan izango da. Bikoteko batek behintzat herritarra izan behar du eta lehenengo lau bikoteek ja-soko dituzte sariak.

Gabino Murua

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
88 51 68
ORMAIZTEGI



USURBE ZENTROA

- *Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)*
- *Lumbago, ziatika*
- *Kirol lesioak*
- *Errehabilitazioa*

16 13 39
Andra Mari, 9-1.
B E A S A I N

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



"Ekogarbi ilargia be-zain garbi"

16 02 23 - 970 95 00 88

Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOITASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

LEGORRETA

Hilabete eskas geratzen denez aurtengo Azintzio jaientarako, herritar gehienak prestakizunetan murgilduta daude buru-belarri. Gehientsuenek jakingo duzuenek, larunbatez Legorreta oesteko herri batean bilakatuko da eta herritar gehienek azaldu dute mozorroan parte hartzeko asmoa. Hau guztia gauzatu ahal izateko, lan handia ari dira burutzen, Udala, tabernariak eta herriko koadrila ezberdinak ahalik eta ikuskizunik ederrena prestatzeko.

Jan Da Lo nagusi

Hil honen 5ean jokatu zen koadrilen arteko futbol txapelketako finalean Jan Da Lo 'A' taldea nagusitu zitzaion Izkilimiliri, 2-0 emaitzaz. Dena den, badirudi talde guztiek zeukatela zer ospatua Bilkoin Elkartean egindako bazkari ostean sortu zen giroa ikusita.

Pelota txapelketa

Aurtengoan ere, pelota txapelketak hartuko dio txanda amaitu berria den koadrilen arteko futbol txapelketari.

Txapelketa bi talde nagusitan banatuko da. Apirilaren 18tik aurrera ditugu ikusgai herriko frontoian, arratsaldeko 3,30etatik aurrera.

Gazteentzako lokala

Udalak, Ikastolako irakasleak bizi ohi ziren etxeko gela bat egokitu du 12 eta 18 urte bitarteko gazteak bertan elkartu eta aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten. Bertan, hiru mahai eta armairu bat ezarri dira. Gazte hauek gainera, musika aparailua, futboliña eta joko ezberdinak izango dituzte eskura. Lokalak Udal Liburutegiaren ordutegi berbera izango du.

Josune Amondarain

ZEGAMA

Apirilaren 30ean bukatzen da, Kultur etxeak antolatutako Windows 95 ikastaroan parte hartu ahal izateko izenemate epea.

Ikastaroa Aitxuri herri-eskolan Guraso Elkartean dirulaguntzaz jarritako ordenagailuetan emango da. Ikastaroa 8 edo 10 ordukoa izango da eta bere helburua Windows 95 programaren oinarriko edukiak azaltzea litzateke.

Plan estrategikoa

Zegamako plan estrategikoa Kultur etxean Goiekiko teknikariek herritarrei azaldu ondoren (Udalak ahobatez onartua) lan taldea osatzeko garaia iritsi da. Honen eginkizuna plan estrategiko horretan agertzen diren helburuak bete daitezen lan egitea da. Izenematea udal txeko idazkaritzan, bulego orduetan egin behar da, apirilaren 30a baino lehenago.

Informatika ikastaroa

Insertoren oparraldiak

1998ko urritik 1999ko apirilarte dirauen Insertoko oparraldi kanpainarako eskaerak egin ahal izateko, 10.000 biztanletik beherakoak diren herrietan, bakoitzak bere udaletxean egin behar ditu.

Beraz, eskaerak egiteko, udaletxera, Gizarte Laguntzailearengana jo behar duzue, apirilaren 30a baino lehen.

Orkatz Txiki Kantatan

Apirilaren 19an Donostian ospatu zen Kantata 98an, Zegamako herria Orkatz Txiki abesbatzak ordezkatu zuen. Ekitaldi garrantzitsu hau lau urtetik behin egiten da eta bertan 2.000 bat haurrek parte hartu zuten.

Eduarne Albizu



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN

San Inazio, 5 ☎ 88 35 81
BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 ORDIZIA

ZERAIN

Indibabaren Ibilbidea Zerainen hasten da

Tolosaldearekin eta Bizkai-ko Busturialdearekin eta Uribe Kostarekin batera, Zerainek Indibabaren Ibilbidea osatzen du. Lau etapa izango ditu ibilbide turistikogastronomiko honek, eta Zerain lehenengoa izango da. Indibaba edo babarruna aitzakitzat harturik, herri edo eskualde bakoitzak eskaintzen dituen beste produktuak zabaldu nahi dira. Zerainen kasuan Aizkorri Parke Naturala, nekazalturismoa, Idiazabalgo gazta, errege sagarrak, sagardoa, mermeladak, dultze eta menbriloak, ezti, Herri Museoa, Larraondoko zerategia, 1711ko kartzela, Diaporama, erlijio-arte, Goierriko artisautza eta abar.

Gauzak honela, ibilbide honen barruan Mandioa eta



Gipuzkoa aldeko Indibabaren Ibilbidearen aurkezpena Zerainen egin zen, asteartean.

Ostatua tabernak sartu dira eta herriko babarruna promozionatzeko menu bereziak eskainiko dituzte, prezio berezietan. Jakoba Errekondo Zerain Dezagun Fundazioko arduradunak adierazi digunez, herrian gero eta gehiago produzitzen den produktua da babarruna, Mandioari esker oso ondo saltzen dena. Indibabaren Ibilbidearen barruan sartu

diren beste eskualdeetan ere hainbat jatetxe daude eta guztietakin jatetxeen informazioa jasoko duen gida egiteko asmoa dago, baina bitartean herri bakoitzean dauden informazio bulegoek beteko dute lan hori. Zeraingo kasuan, 943-801505 telefonoan duzue informazio zehatza; Tolosaldean, 943-654972 telefonoan; Busturialdean, 94-6257204;

eta Uribe Kostan, 94-6156612. Inaugurazio ekitaldian herri ezberdinetako alkateek gain, Martin Berasategi sukaldaria ere izan zen.

Jakoba Errokondok argitu digunez, jende asko joaten da jatetxetara babarrunak jatera. Asteburuetako kartetan sartuta omen dago zenbait jatetxetan. Gauzak honela, lau eskualde eta herri hauek helburu berak dituztenez, batera ekin diote ibilbide honi. "Ibilbide honetan Goierri osoak egon behar zuen sartuta, baina ez da nahi izan", dio Jakobak.

Era honetako ibilbideak prestatzea gero eta garrantzitsuagoa omen da. Euskal Herrian dauden eskaintza turistiko garrantzitsuen osagarri baitira.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarkeko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN



Garbitasunak

OXEPI

☎ 88 96 67 ZALDIBIA



ARANDIA

Garaiea

LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

ARRIETA

JATETXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Argitarapen honen edizioa laguntzen.

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación

ATAUN

Joxe Goikoetxea etxean



Apirilaren 2an libre gelditu zen Joxe Goikoetxea, 13 urtez Espainiar Estatuko kartzela ezberdinetan egon ondoren. Carabanchel, Alcalá, Herrera, Langraitz, Sevilla-2, Jerez de la Frontera, Jaen, Huelva, Valentzia eta Castellongo kartzeletan egon da.

Dupuytren eskuetako gaitza dauka Joxek eta bi eskuetako hatz txikiak okertuta dauzka eta besteak ere bide berdina ari dira hartzen. Gaixotasun honengatik legez kalean egon behar zuen lehenago, baina zigorra beteta atera da. Denbora gehiago pasatuz gero, ezkerreko hatz txikia moztu beharrean egongo zen. Medikarenean izan da kartzelatik atera ondoren, eta oso egoera txarrean badauka ere, ebakuntza egin eta ondo geldituko zaionaren garrantia eman dio.

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kaleratze-

ko, zigorraren 3/4a beteta dutenak kaleratze-ko eta Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen dituen hainbat herri ekimen eta plataforma sortu dira azken bi urteotan. Joxek aipatu digunez, "ekimen hauek hasi zirenen esperantza gehiago genuen. Orduan kalean eta barruan zegoen indarra, baretu egin da. Orain

ikusita egoera politikoa nola dagoen eta Barne Ministeritza zein joko zikina egiten ari den, asimilatu eta lasaiago hartzen dugu, esperantza faltsua ez egitearren. Ikusten da kalean manifestazio handiak, gose greba asko... egin direla, Barne Ministeritzak hanka artetik pasatu ditu eta hemengo alderdi politikoek ez dute gehiegi matxakatzen".

Urte guztietan kartzela ezberdinetan egon izan da Joxe. Momenturik gogorrenak Sevilla-II eta Jerez de la Fronteran pasatu omen zituen. "1989an dispersioa hasi zenean, Herreratik Sevilla IIra eramán gintuzten, 60 bat lagun. Gero dispersio zabalagoa hasi zen eta Sevillan gelditu ginenok, sakabanatu egin gintuzten modulo ezberdinetan. Ez genuen onartu eta orduan 2 urteko txapeoa egin genuen. Ziegatik bazkaltzera eta afaltzera bakarrik ate-

ratzen ginen. Inor ikusi gabe egon ginen. Dena den, hori baino okerragoa, erregimenari dagokionean, Jerez de la Fronterakoa izan zen. Hiru egunetik hiru egunera ziegaz edo moduloz aldatzen gintuzten. Ez ziguten uzten ezer egiten. Bisita asko moztzen zizkiguten. Lo egiten ere ez ziguten uzten zenbait unetan".

Ezin sinistu

Castellongo funtzionarioak kalera zihoala esan zionean, ezin sinistu gelditu zen. "Ni kalera? galdetu nion berriz ere funtzionarioari. Kalera atera nintzenean, espetxetik gasolindegia batera dauden 300-400 metro egiten nekatu egin nintzen. Dena irekia, mendiak, kotxeak, jendea... ikustean, burua nekatu egin

zitzaidan".

Ataun ez omen du oso aldatua ikusi. "Espaloiak, frontoi berria, baserri zahar asko berrituak... Eguraldi txarra dela eta, oraindik ez dut Lareo ezagutzeko aukerarik izan", dio. Beasain, Ordizia eta Lazkao, berriz, izugarri aldatu omen dira.

Huelvako kartzelan zegoela jaio zen bere semea, orain 3 urte eta erdi. Bisitetan bakarrik ikusia zen orain artean, baina berehala egin omen da. Aitarekin ibili nahi omen du semeak denbora guztian. Eskueta ebakuntza egin eta ahal izanez gero, lanean hastea du asmoa Joxek. Kartzelan informatikako ikasketak egin ditu.



Oier Zurutuza

Oier Zurutuzak martxoaren 29an Bilboko Etxebarria parkean, Euskal Eskola Publikoak antolatutako bertso-

paper lehiaketako lehenengo saria jaso zuen. Goierriko bertso-eskolako ikaslea da Oier.

Diskoa eta liburuxka

Bihar, apirilak 25, iluntzeko 8etan, San Martin elizan, aurkeztuko da San Martin elizan dagoen organo barroko iberikoaren doinuak biltzen dituen diskoa. Bere historia biltzen duen liburuxka ere aurkeztuko da. Diskoa 2.000 pezeta eros daiteke, aurkezpenean bertan edo Udaletxean. Organoari buruzko informazioa 32. orrian duzue.

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

lues
rothers
BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 **BEASAIN**

Ataungo organo barrokoaren diskoa eta liburuxka aurkezpena bihar

Bihar, larunbata, apirilak 25, iluntzeko 8etan, Ataun San Martin elizako organo barrokoaren diskoa eta liburuxka aurkeztuko dira, Ataungo udalaren eskutik. Jose Maria Arrizabalagak 1996an berritu zuen organoa eta iazko udan diskoa grabatu zuten, Esteban Elizondo organojolearen eskutik. Ertaroko doinuak biltzen dira bertan. Aurkeztuko den liburuxkak, berriz, organoaren historia biltzen du.

San Martin elizako korian dagoen organoa barroko estilokoa da eta estilo horren barruan organo iberiko deiturikoa. Gipuzkoan horrelako zazpi organo daude eta Ataungoa da garrantzitsuenetakoa. Garaiko soinu unerik gorenaren eredu da. 1761. urtean Lorenzo Arrazola oñatiarrak egin zuen, 12.000 erreale truke. Intxaurren, gaztainondo eta haritezkoa da. Beste osagai batzuetarako burdin forjatuaz eta eztaingaz (hodi-dientzak) baliatu ziren.

Organoaren kaxa bera du nabarmenena. Juan Antonio



Maiz eta Joakin Antonio Barasategi maisuek egindakoa. Organoaren fatxada edo aurrealde horrek hiru zati dauzka:

Basamentuan, oinaldean, teklatuaren leihoa dago eta albo bietan erregistroen tiragailuak. Alde banatan bi ate ditu, organo barrura, hauspoen gelara sartzeko.

Basamentuaren eta frontoiaren tartekoa aurpegia da. 81 hodi dauzka: 37 soinu-dunak; 36 gorpuztunak izan arren apaingarri gisa daudenak; eta 8 margotutakoak.

Fatxadaren buruan, boro-bil formako frontoia dago, loretzar eta bolutekin apaindutakoa. Tinpanoan, gezurrezko leiho batean, 7 hodi daude margotuta.

Bi teklatu dauzka Ataun-

go organoak: bata eskuekin jotzekoa, 45 nota dituen; eta bestea, 8 nota dituen. Horietaz gain, 35 erregistro ere baditu, 15 bajoentzat eta 20 tripleentzat, eta baita kontra multzo bat ere. Tiragailuak intxaurren egurrez eginak daude, muturrek boja dutelarik. Guztira 1.450 hodi dauzka: 1.399 soinu-dun edo benetakoak eta 51 gezurrezkoak edo apaingarri bezala daudenak.

Sekretua intxaurren egurrez egin dago eta pieza bakarrek da; bere hamaika oholen gainean daude ipinita hodiak. Kontren sekretuak, aldiz, bi pieza dauzka.

Berezitasunak

Organoaren soinua bete-betean garatua dagoena da:

flauta eta nasardoaren piramidea dauka, Bete, Zinbalo eta Gainzinbalo erregistroetan burutzen dena; 13 eta 26 arrabeteko pedal zapaltzailak, korneta gainaltzaila, goiena jo duen batailako tronpetaria eta oihartzunen kutxa. Horiez gain, garai hartako organoen berezko ezaugarriak ere baditu: txoritxoak, errebolanderak, danbor eta tinbalak.

Berriztatze lanetan jardun zuen Joxe Mari Arrizabalaga organo maisuaren arabera, *"iraganak utzi digun artelan miresgarri baten aurrean gaude eta horrelakoetan, gizalegeak berak agintzen du ezin dela desegin ezta aldatu ere, ondo pentsatu eta hobeto egindako zerbait. Praktikan, gaizki eraikitako organoek ez dute gehiegi irauten. Aitzitik, ondo egin eta egoki zaindutakoek mende-etako bizia izan dezakete"*.

Organoaren doinuaren bilduma

San Martin elizako organoak daukan kalitatearen eta osparen adibide gisa aipa daitezke bere soinua jasoz grabatutako bi musika saioak. 1981. eta 1997. urteetan izan zen hori, Esteban Elizondo organojolearen eskutik eta EEBBeko eta Alemaniako bi diskoetxeentzat. Era berean, urtero urri aldera Bach musikagile handiari eskaintzen zaion musikaldian ere badu bere tartetxea.

Bihar aurkeztuko den diskoa iazko uztailaren 13an eta 14an grabatu zuten. Bertan Esteban Elizondo organo jole ospetsuak ertaroko 12 pieza jo zituen. Diskoa aurkezpenean bertan salgai egongo da 2.000 pezetan. Ataungo Udaletxean (180011) ere erosi ahal izango da.

KUBIA

FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBBeko
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
Tel-Faxa: 43 15 48

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

3 KANPORAKETA JOKATUKO DIRA MAIATZAREN 23ko FINALAREN AURRETIK

Osinalde bertso sariketa eraberriturik dator

Gabiriako Osinalde bertso txapelketa jokatzeko 6 bertsolari aukeratzeak gero eta lan handiago ematen zuela ikusirik eta ideia berriak garatu nahirik, Goierriko hainbat elkarteren laguntzaz, antolatzaileek formula berria jarriko dute aurten martxan: 3 kanporaketa jokatu dituzte 18 bertsolarik. Finala maiatzaren 23an jokatu da Gabirian.

Urte asko daramazkitez gabiriarrak Osinalde bertso sariketa 6 bertsolariarekin jokatzen. Ideia berriak martxan jarri eta zabaldu egin

nahi izan dute aurten sariketa prestigiotsua. Euskal Herri osoan 18 eta 25 urte bitarteko maila oneko bertsolari asko daudenez, gero eta zailagoa egiten zitzaizen antolatzaileei 6ko taldea aukeratzeko. Gauzak honela, Goierriko hiru elkarteren laguntzaz, hiru kanporaketa jokatu dira finalaren aurretik.

Hiruko taldeetan, guztira 18 bertsolarik hartuko dute parte. 15 bertso bota behar dituzte eta saio bakoitzeko bi bertsolari sailkatuko dira finalerako. Entzulearen saria ere jasoko du entzulearentzat gustokoena izan den bertsolariak.

Finala maiatzaren 23an, Gabiriako Osinalde elkartearen jokatu da. Bertso-saioaren aurretik afariak izango dira gaueko 8,30etan hasita.



Alaitz Sarasola eta Mikel Aranburu Goierriko ordezkariak Osinalde sariketan.

Txartelak aurrez erosi behar harko dira. Hiru kanporaketen egitaraua eta parte hartuko duten bertsolarien zerrenda jarraian duzue:

● **Maiatzak 2, Ordiziako Argi-Berri elkartearen:** Ibai Esoain (Orio), Nahikari Gabilondo (Zarautz), Arkaitz Goikoetxea (Oartzun), Iñigo Manzisidor (Zarautz), Iker Osa (Hernani) eta Oihane Perea (Gasteiz). Txartelak Iñaki tabernan salgai, 2.000 pezetaren truke.

● **Maiatzak 8, Idiazabalgo Axari elkartearen:** Amaia Agirre (Billabona), Mikel Aranburu (Beasain), Alfonso Jimenez (Tolosa), Iñigo Olaetxea (Lesaka), Alaitz Sarasola (Ordizia) eta Aitor Usandizaga (Asteasu).

● **Maiatzak 9, Brinkolako Muño elkartearen:** Ibon Ajuaria (Gernika-Lumo), Urko Egaña (Azpeitia), Itziar Ezaguirre (Hernani), Joseba Gojenola (Berriatua), Leire Ostolaza (Azpeitia) eta Haritz Zerain (Hernani).



MULTIOPTICAS




Zure eguzkitarako betaurrekoak
MULTIOPTICASen erosi ezker, guri
beste batzuk bidaltzen dizkigute.
Guregatik zerbait egiten ari zara.

SOLIDARIOS



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB" -
PROGRAMAKO PUNTUAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA



1959an Loroñori omenaldia Lazkaon

1979ko uztailaren 31n, Lazkaon, Jexux Loroño txirrindulariari egin zitzaion omenaldiko argazkia da. Pilar Imazek utzi digu. Nahasi samar badaude ere, ea saiatzen garen ahalik eta zuzena jartzen.

Atze-atzean, ezkerretik eskubira: Xabin Mingo, Joxe Kerejeta, Julio Auzmendi, Migel Barandiaran (tabernako atean), Inazio Izagirre, Jexux Esnaola, Antonio Aguado, Eukeni Lasa, Joxe Kruz Zurutuza eta Urra (txapelduna).

Tarteko ilaran: Mari Karmen eta Kontxi Alberdi, Joxe Arratibel, Iñaki Begiristain, Jexux Loroño (korbataduna), Joxe Belamendia, Txamari Altolagirre, Konde, Jexux Mendia, Angel Campano, Jexux M. Arrizabalaga, Lazaro Ormazabal eta Antonio Docampo.

Aurreko ilaran: Milagros Aierdi, ezezaguna, Migel Insausti, Baztarrika, Koldo Armendariz, Pako Tolosa eta Joxe Imaz.

LEKIM
HAROTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 16 12 83
LAZKAO ☎ (mugik.) 908 - 61 95 01

OSTAISKA
Goxoki denda

- ✖ Goxokiak
- ✖ Fruitu lehorrak
- ✖ Izozkiak

Elosegi, 2 LAZKAO

PIPAS
JATETXEA

Jannartze, bataio edo edozein ospakizunetarako aukera egokia

Albitxu baserria ☎ 88 08 05 LAZKAOMENDI

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 88 26 31
Gurutze, 2 LAZKAO

ANDERE
USAINDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3 ☎ 88 30 02 LAZKAO

ETXEGO

Autoen konponketa orokorra
Direkzio zuzenketa - Gurpil aldaketa
Olio aldaketak, engraseak - Diagnosiak

Hiribarren Atze, 11 ☎ 88 45 64 LAZKAO

BURDINDEGIA
GVREA

HORNITEGI
LANABES ETA HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

Madalena, 2 Tfnoa.: 88 19 95 LAZKAO



San Prudentzio ☎ 88 33 52
Uhaitz ☎ 88 93 14 LAZKAO
ARAKAMA HARATEGIA

MUNDUATE ERLOJUTEGIA baita zure BITXITEGIA ere

✓ JAUNARTZERA KO BITXI AUKERA
HANDIA: BELARRITAKOAK, ERAZTUNAK,
ERA GUZTIAKOKO JOKUAK, ZIGILU-
ERAZTUNAK, ESKUMUTURREKOAK,
ESKUMUTURREKOAK IDENTITATEAREKIN,
LEPOKO KATEAK GURUTZEAREKIN,
TXAPAK, DOMINAK, e.a.

✓ EZKONGAIENTZAT DISEINU
EZBERDINEKO EZKONTZA-ERAZTUNAK

✓ MARKA EZBERDIN ETA PREZIO
GUZTIAKOKO ERLOJUETAN AUKERA
ZABALA.

BIXITA GAITZAZU ETA GERO
ERABAKIKO DUZU!

1883 URTEAN SORTUTAKO ETXEA

Kale Nagusia, 1-2 ☎ 88 12 72 ORDIZIA



VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIAKOKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

BELEN

BELEN
Zure ezkontza zerrenda prestatzeko gustoko
gauza ugari aurkituko dituzul



Urdaneta Kalea, 24 eta 25 ☎ 16 22 87 ORDIZIA